


Nokia N70-1



NOKIA N70

Telefonoaren
erabilera-gida.

NOKIA

CE 168

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA
 Guk, NOKIA CORPORATION enpresak, gure erantzukizun bakarraren baldintzapean aitortzen dugu RM-84 produktua kontseiluko honako Arau honetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela: 1999/5/EE. Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan: http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/.



Gurpildun edukiontzia irudiak adierazten du Europako Batasunaren barnean bereizita jaso behar dela objektua, haren bizikiziloaren amaieran. Horrek gailuarentzat eta ikur hori duten gainerako osagarrietarako balio du. Ez bota produktu hau udal-hondakindegira sailkatu gabe.

Copyright © 2005 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. Debebatuta dago dokumentu osoa edo zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Nokia, Nokia Connecting People, Pop-Port eta Visual Radio markak Nokia Corporation-en merkataritzako markak edo marka erregistratuak dira. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen marka komertzialak edo erregistratuak izan daitezke. Nokia tune Nokia Corporation-ek erregistratutako doinu da.

symbian

This product includes software licensed from Symbian Software Ltd (c) 1998-2005. Symbian and Symbian OS are trademarks of Symbian Ltd.



Java™ and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Stac®, LZS®, ©1996, Stac, Inc., ©1994-1996 Microsoft Corporation. Includes one or more U.S. Patents: No. 4701745, 5016009, 5126739, 5146221, and 5414425. Other patents pending.

Hi/fn®, LZS®, ©1988-98, Hi/fn. Includes one or more U.S. Patents: No. 4701745, 5016009, 5126739, 5146221, and 5414425. Other patents pending. Part of the software in this product is © Copyright ANT Ltd. 1998. Eskubide guztiak erreserbatuta. US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright (C) 1997-2005. Tegic Communications, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

This product is licensed under the MPEG-4 Visual Patent Portfolio License (i) for personal and noncommercial use in connection with information which has been encoded in compliance with the MPEG-4 Visual Standard by a consumer engaged in a personal and noncommercial activity and (ii) for use in connection with MPEG-4 video provided by a licensed video provider. No license is granted or shall be implied for any other use. Additional information including that relating to promotional, internal and commercial uses may be obtained from MPEG LA, LLC. See <<http://www.mpegla.com>>.

Produktu honek Ikusizko MPEG-4 Patenten Zorroaren Lizenzia izan behar du, (i) kontsumitzaile batek helburu ez-komertzialarekin eta pertsonalarekin Ikusizko MPEG-4 Estandarraren arabera kodetutako informazioarekin lotutako erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako, (ii) bideo-irtenbideen hornitzaile baimendu batek eskainitako MPEG-4 bideoarekin lotutako erabilera bateraturako. Ez da barne hartzen ez eta inplizituki hartzen ere beste zerbaiteko erabiltzeko lizentziarik. Erabilera komertzialari, sustatzaileari eta MPEG LA, LLC-ri buruzko informazio gehiago eska dezakezu. Ikus <<http://www.mpegla.com>>.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta eskubidea dauka dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko aurrez oharlarazi gabe.

Nokiak ez du bere gain hartuko, inola ere, datuen edo diru-sarreraren galera, ez eta inolako kalterik, gertakaririk, ondoriozkorik edo zeharkakorik ere, horien arrazoia edozein dela ere.

Dokumentu honen edukia dagoen dagoenean ematen da. Aplikatu beharke legeak hala eskatzen duenean izan ezik, ez da inolako bermerik –berariazkorik edo inplizituri- ematen, baina merkaturatzeko eta egokitzeko berme inplizitua ez da mugatzen dokumentu honen zehaztasunera, fidagarritasunera eta edukira. Nokiak dokumentu hau edozein unetan eta aurrez abisatu gabe berrikusteko edo merkaturik kentzeko eskubidea dauka.

Produktu jakin batzuk eskura egotea aldatu egin daiteke eskualde batetik bestera.

Galde iezaziozu gertuen duzun Nokiaren banatzaileari.

Produktu honek AEBetako eta beste herrialde batzuetako araudien eta legearen araberako osagaiak, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debebatuta dago legeak urratzea.

FCC/KANADAKO INDUSTRIAREN OHARRA

Gailuak eragina izan dezake irratiazen eta telebistaren seinalearen harreran (adibidez, telefonoa ekipo hargailutik hurbil erabiltzen bada). FCC edo Kanadako Industriak telefonoa ez erabiltzeko eska diezazuke, interferentzia horiek ezabatzerik ez badago. Laguntza behar baduzu, jarri harremanetan dagokizun zerbitzu-zentroarekin. Gailu honek FCC araudiaren 15. sekzioa betetzen du. Gailu hau erabiltzeko interferentzia kaltegarririk ez eragiteko baldintza bete behar du.

1. EDIZIOA, 9239945

Aurkibidea

Zure segurtasuna.....	9
Nokia N70	12
Laguntza.....	12
Gidaria	12
Zuzeneko sarbide erabilgarriak.....	12
Erlojua	14
Erlojuaren doikuntzak.....	14
Munduko erlojua.....	15
Bolumenaren eta bozgorailuaren kontrola.....	15
Fitxategien kudeatzailea	15
Memoriaren kontsumoa ikustea	16
Ez dago behar adina memoriarik: memorian lekua egitea.....	16
Memoria-txartela tresna.....	17
Memoria-txartela formateatzea.....	18
Gailua pertsonalizatzea.....	19
Moduak: tonuak ezartzea	20
Lineatik kanpo modua	20
Edukia beste gailu batera transferitzea.....	21
Gailuaren itxura aldatzea.....	22
Deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboa.....	22
Deiak egitea	24
Ahots-deiak.....	24
Multikonferentzia-dei bat egitea.....	24
Telefono-zenbakia bizkor markatzea	25
Ahots bidezko markaketa.....	25
Bideo-deiak	26
Bideoak partekatzea	27
Bideoak partekatzeko baldintzak	28
Doikuntzak.....	28
Zuzeneko bideoak eta bideo klipak partekatzea	29
Gonbidapena onartzea.....	29
Deiei erantzutea edo ez onartzea	30
Bideo-deiei erantzutea edo ez onartzea	30
Deia zain (sare-zerbitzua)	31
Ahots-dei bateko aukerak.....	31
Bideo-deian dituzun aukerak.....	32
Erregistroa	32
Azken deiak.....	32
Deiaren iraupena	33
Datu-paketeak.....	33
Komunikazio-gertakizun guztiak kontrolatzea	33

Telefono-aurkibidea.....	35	Irudia.....	52
Izenak eta zenbakiak gordetzea.....	35	Irudien inprimaketa.....	52
Aurrez zehaztutako zenbakiak eta helbideak.....	36	Inprimagailua hautatzea	52
Kontaktuak kopiatzea.....	36	Inprimatu aurretiko ikuspegia	52
SIM direktorioa eta beste SIM zerbitzuak.....	37	Inprimaketaren doikuntzak.....	52
Dei-seinaleak esleitzea kontaktuetarako	37	RealPlayer™	53
Kontaktu-taldeak sortzea.....	38	Bideoklipak edo soinuklipak erreproduzitzea.....	53
Talde bateko kideak ezabatzea	38	Pista-zerrenda bat sortzea	53
Kamera eta galeria.....	39	Edukia aire bidez sekuentziantan transmititzea	54
Kamera.....	39	RealPlayer-en doikuntzak jasotzea.....	54
Argazkiak ateratzea.....	39	Movie director	55
Segidako argazkiak egitea.....	41	Muvee bizkorra sortzea.....	56
Norbera argazkian ateratzea: Auto tenporizadorea	41	Muvee pertsonalizatua sortzea	56
Flasha.....	41	Mezuak.....	58
Kameraren irudien doikuntzak konfiguratzea.....	42	Testua idaztea.....	59
Kolora eta argiztapena doitzea.....	42	Ohiko bidea erabilita testua idaztea.....	59
Eszenak	43	Testu prediktiboarekin idaztea: Hiztegia.....	60
Irudiak editatzea.....	44	Testua arbelean kopiatzea.....	62
Bideoak grabatzea	44	Mezuak idaztea eta bidaltzea.....	62
Bideoklipak editatzea.....	46	Multimedia-mezen eta mezu elektronikoen	
Galeria.....	48	doikuntzak jasotzea	64
Irudiak eta bideoklipak ikustea	49	Sarrerako postontzia: mezuak jasotzea.....	65
Diapositibak.....	50	Multimedia-mezuak	65
Albumak.....	51	Datua eta doikuntzak	65

Web zerbitzuen mezuak.....	66	Agendako alarma aktibatzea.....	79
Nire karpetak.....	66	Agendaren ikuspegiak.....	79
Postontzia.....	66	Agendako sarrerak ezabatzea.....	80
Postontzia irekitzea.....	67	Agendaren doikuntzak.....	80
Postako mezuak berreskuratzea.....	67	Internet.....	81
Postako mezuak ezabatzea.....	68	Interneterako sarbidea.....	81
Postontzia deskonektatzea.....	69	Nabigatzailearen doikuntzak jasotzea.....	81
Irteerako postontzia: mezuak bidaltzeko zain.....	69	Doikuntzak eskuz sartzea.....	81
Mezuak SIM txartel batean kontsultatzea.....	70	Gogokoan ikuspegiak.....	82
Mezuen doikuntzak.....	70	Gogokoak eskuz eranstea.....	82
Testu-mezuak.....	70	Gogokoak bidaltzea.....	82
Multimedia-mezuak.....	71	Konexioa ezartzea.....	83
Posta.....	72	Konexio-segurtasuna.....	83
Web zerbitzuen mezuak.....	74	Nabigatzea.....	83
Sare zelularren informazioa.....	74	Gordetako orriak ikustea.....	84
Beste doikuntza batzuk.....	74	Edukiak deskargatzea.....	85
Irratia.....	75	Konexioa amaitzea.....	85
Irratia entzutea.....	75	Cachea hustea.....	85
Ikusizko edukia ikustea.....	76	Web-eko doikuntzak.....	85
Gordetako kanalak.....	77	Nire gauzak.....	87
Doikuntzak.....	77	Jokoak.....	87
Agenda.....	78	Musika-erreprouditzailea.....	87
Agendako sarrerak sortzea.....	78	Musika gehitzea.....	87
		Musika erreprouditzea.....	88

Erreproduzio-zerrendak.....	88	PC konexioak.....	98
Ir a: zuzeneko sarbideak eranstea.....	89	CD-ROMa.....	98
Zuzeneko sarbide bat ezabatzea.....	89	Gailua modem gisa erabiltzea.....	98
BM: berehalako mezularitza (txata).....	89	Konexioen kudeatzailea.....	98
BM-ren doikuntzak jasotzea.....	90	Datu-konexio baten xehetasunak ikustea.....	99
Zerbitzari batera konektatzea.....	90	Urruneko sinkronizazioa.....	99
Berehalako mezularitzaren doikuntzak aldatzea.....	90	Sinkronizazio berrien profilak sortzea.....	100
Berehalako mezularitzaren taldeak eta		Datuak sinkronizatzea.....	101
erabiltzaileak bilatzea.....	91	Gailuen kudeatzailea.....	101
Berehalako mezularitzaren talde batera sartzea		Zerbitzarien profilen doikuntzak.....	101
eta taldetik irtetea.....	91		
Txata.....	91	Bulegoa.....	103
Elkarrizketak ikustea eta hasieratzea.....	92	Kalkulagailua.....	103
BMko kontaktuak.....	92	Bihurgailua.....	103
Berehalako mezularitzaren taldeak kudeatzea.....	93	Oinarriko moneta eta truke-tasak definitzea.....	104
Txat-zerbitzarien doikuntzak.....	93	Zereginak.....	104
		Oharrak.....	105
		Grabagailua.....	105
Konektagarritasuna.....	94	Tresnak.....	106
Bluetooth konektagarritasuna.....	94	Multimedia-tekla.....	106
Bluetooth-aren konexio-doikuntzak.....	95	Doikuntzak.....	106
Datuak bidaltzea Bluetooth konexio batekin.....	95	Telefonoaren doikuntzak.....	106
Gailuen arteko loturak ezartzea.....	96	Dei-doikuntzak.....	108
Datuak jasotzea Bluetooth konexio batekin.....	97	Konexioko doikuntzak.....	109
Bluetooth konektagarritasuna desaktibatzea.....	97	Eguna eta ordua.....	112

Segurtasuna	112
Deiak desbideratzea	115
Murrizketak	115
Sarea	116
Osagarrien doikuntzak	116
Ahots-komandoak.....	117
Aplikazioen kudeatzailea.....	117
Aplikazioak eta softwarea instalatzea	118
Aplikazioak eta softwarea ezabatzea	119
Aplikazioen doikuntzak.....	119
Aktibazio-gakoak: copyright babesa duten fitxategien erabilera.....	120

Arazoak konpontzea	121
Galderak eta erantzunak.....	121
Bateriari buruzko informazioa	124
Kargatzea eta deskargatzea.....	124
Nokia bateriak autentifikatzeko arauak.....	124
Zainketa eta mantentze-lana.....	127
Segurtasunari buruzko informazio gehiago	128
Aurkibide alfabetikoa.....	132

Zure segurtasuna

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Irakurri erabiltzailearen eskuliburu osoa informazio gehiago izateko.



PIZTU TELEFONOA

ARRISKURIK GABE Ez piztu gailua mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA

FUNTSEZKOA DA Errespetatu tokian tokiko legedia. Gidatzen duzun bitartean, eskuak libre izan beti autoarekin maniobrak egin ahal izateko. Gogoratu errepedean gidatzeko lehen araua arretaz ibiltzea dela.



INTERFERENTZIAK

Gailu mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.



ITZALI TELEFONOA OSPITALEETAN

Errespetatu murrizketa guztiak. Itzali gailua tresna mediko batetik gertu zaudenean.



ITZALI TELEFONOA HEGAZKINETAN

Errespetatu murrizketa guztiak. Haririk gabeko gailuak –esate baterako telefono mugikorrek– erabiltzeak interferentziak sor ditzake hegazkinetan.



ITZALI TELEFONOA GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN

Ez erabili gailua gasolina-zerbitzuguneetan. Ez erabili erregaietatik edo produktu kimikoetatik gertu.



ITZALI TELEFONOA LEHERGAIETATIK GERTU

Errespetatu murrizketa guztiak. Ez erabili gailua leherketak egiten dituzten lekuetan.



ERABILI ZENTZUZ

Telefonoa posizio normalean bakarrik erabili, produktuaren dokumentazioan azaltzen den bezala. Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.



ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu teknikoetako langile gaituek soilik instala edo konpon dezakete produktua.



EKIPAMENDUA ETA BATERIAK

Fabrikatzaileak onartutako ekipamendua eta bateriak soilik erabili. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure gailuak ezin du ura jasan. Ez ezazu busti.



SEGURTASUN-KOPIAK

Gogoratu informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.



KONEXIOA BESTE GAILU

BATZUEKIN Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasuneko jarraibideak ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



LARRIALDI-DEIAK

Egiaztatu gailuaren telefono-funtzioa piztuta eta martxan dagoela. Sakatu amaitzeko tekla behar adina aldiz pantaila ezabatzeko eta hasierako pantailara itzultzeko. Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu deitzeko tekla. Adierazi zure kokapena. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

Telefonoari buruz

Gidaliburua honetan deskribatutako gailu mugikorraren erabilera sare hauek onartzen dute: EGSM 900/1800/1900 eta UMTS 2100. Sareei buruz informazio gehiago izateko, jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Gailu honetako funtzioak erabiltzean, errespetatu legeak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak.

Irudiak edo bideoklipak erabili eta grabatzean, errespetatu legeak, tokiko ohiturak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak.



Oharra: gailu honen funtzioak, erlojuaren alarma salbu, erabiltzeko, piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Sare-zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaile baten zerbitzuak kontratatu behar dituzu. Telefono honen funtzio asko erabiltzeko haririk gabeko sarearen funtzioak behar dira. Litekeena da sare-zerbitzu horiek sare guztietan erabilgarri ez egotea edo zure zerbitzu-hornitzailearekin akordio bat lortu behar izatea erabili ahal izateko.

Baliteke zerbitzu-hornitzaileak horien gaineko jarraibide gehiago ematea eta kasu bakoitzean zein kargu aplikatzen diren jakinaraztea. Litekeena da sare batzuek zenbait muga izatea eta horiek sare-zerbitzuak erabiltzeko moduan eragitea. Adibidez, baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzaren menpe dauden zenbait karaktere eta zerbitzu.

Eta litekeena da zerbitzu-hornitzaileak eskatu izana funtzio batzuk gailuan erabilgarri edo aktibatuta ez egotea. Hala bada, ez dira agertuko zure telefonoaren menuan. Litekeena da, halaber, zure gailua modu berezi batean konfiguratuta egotea. Konfigurazio-aldaketek menuen izenei eta ordenei eta ikonoei eragin diezaiekete. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin informazio gehiago jaso nahi baduzu.

Telefono honek WAP 2.0 (HTTP eta SSL) protokoloak onartzen ditu, eta horiek TCP/IP protokoloekin exekutatzen dira. Telefono honetako funtzio batzuek (adibidez, MMS, nabigazioa, posta elektronikoa eta nabigatzaile bidez edo MMS bidez edukiak deskargatzeko aukera) sarea behar dute, teknologia horiek erabili ahal izateko.

SIM txartelaren zerbitzuen erabilgarritasunari eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin. Sare-operadorea, zerbitzu-hornitzailea edo beste banatzailearen bat izan liteke.

Osagarriak, bateriak eta kargagailuak

Bateria kendu aurretik, ziurtatu beti telefonoa itzalita eta kargagailutik deskonektatuta dagoela. Kargagailua erabili aurretik, egiaztatu modeloaren zenbakia, bateragarria den jakiteko. Gailu hau honako hauek erabiliz elikatzeko diseinatuta dago: DC-4, AC-3 eta AC-4. Bestalde, AC-1, ACP-7, ACP-8, ACP-9, ACP-12, LCH-8, LCH-9 edo LCH-12 kargagailuekin ere elika daiteke, gailuarekin batera datorren CA-44 kargagailuaren egokigailuarekin erabiltzen denean.

Gailu honekin BL-5C bateria erabili behar da.



Oharra: Nokiak modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta ekipamendua soilik erabili. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratu daitezke, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako ekipamendua badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin. Edozein ekipamenduren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.

Nokia N70

Modeloaren zenbakia: Nokia N70-1


Hemendik aurrera Nokia N70.




Laguntza



Gailuak laguntza-sistema bat du. Aplikazio batetik edo menu nagusitik sar zaitezke laguntzara.

Aplikazio bat irekita dagoenean eta ikuspegi horretako laguntzara sartu nahi baduzu, hautatu **Opciones > Ayuda**.

 **Adibidea:** kontaktuaren txartel bat sortzeko jarraibideak kontsultatzeko, hasi txartela sortzen eta hautatu **Opciones > Ayuda**.

Jarraibideak irakurtzen ari zarenean, bigarren mailan irekita dagoen aplikaziora igaro zaitezke; horretarako, luze sakatu tekla .


Laguntza menu nagusitik irekitzeko, hautatu **Herrams. > Ayuda**. Hautatu aplikazio bat, laguntza-gaien zerrenda bat ikusteko. Hitz gakoak erabiliz laguntza-gaiak bilatzeko, hautatu **Opciones > Buscar palab. clave**.

Laguntza-gai bat irakurtzen ari zarenean, horrekin lotutako beste gai batzuk ikusi nahi badituzu, sakatu  o .



Gidaria


Gidari horrek gailuaren hainbat ezaugarri buruzko informazioa eskaintzen dizu.




Menutik gidarira sartzeko, sakatu  eta hautatu **Mis cosas > Tutorial** eta ikusi nahi duzun atala. Gidariaren eduki guztiak ikusteko aukera duzula bermatzeko, sartu gailuan dagokion memoria-txartela.

Zuzeneko sarbide erabilgarriak




Erabili zuzeneko sarbideak gailuaren funtzioei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Ikusi Erabiltzailearen eskuliburuaren atalak, funtzioei buruzko informazio gehiago lortzeko.

Argazkiak ateratzeko








- Argazki bat atera baino lehen irudi-doikuntzak konfiguratzeko, sakatu .






- Argazki bat ateratakoan, irudia multimedia, posta edo Bluetooth bidez bidaltzeko (**Via multimedia**, **Via correo** edo **Via Bluetooth**, hurrenez hurren), sakatu  Informazio hau zabaltzeko, ikus 'Mensajes', 58. orrialdean eta 'Conectividad Bluetooth', 94. orrialdean.
- Irudi bat ezabatzeko, sakatu 
- Beste argazki bat ateratzeko, sakatu  edo kameraren kliskagailu-tekla.

Bideoklipak grabatzea





- Bideo bat grabatu baino lehen bideo-doikuntzak konfiguratzeko, sakatu 
- Bideoklip bat grabatutakoan, bideoa multimedia, posta edo Bluetooth bidez bidaltzeko (**Via multimedia**, **Via correo** edo **Via Bluetooth**, hurrenez hurren), sakatu  .mp4 formatuarekin gordeta dauden bideoklipak ezin dira aldatu multimedia-mezuetan. Informazio hau zabaltzeko, ikus 'Mensajes', 58. orrialdean eta 'Conectividad Bluetooth', 94. orrialdean.
- Bideoklip bat ezabatzeko, sakatu 

Testua eta zerrendak editatzea

- Zerrenda bateko elementu bat markatzeko, joan elementura eta sakatu  eta  aldi berean.
- Zerrenda bateko hainbat elementu markatzeko, luze sakatu  tekla eta, aldi berean, sakatu  edo  Hautaketa amaitzeko, askatu  eta, gero, askatu 




- Testua kopiatu eta itsasteko: letrak eta hitzak hautatzeko, luze sakatu  tekla. Sakatu  edo  batera. Aukeratutakoa mugitu ahala, testua nabarmendu egiten da. Testua arbelean kopiatzeko, sakatu  tekla eta, aldi berean, hautatu **Copiar**. Dokumentuan testua sartzeko, luze sakatu  eta sakatu **Pegar**.

Deiak jasotzeko/egiteko modua

- Irekita dagoen aplikazio batetik bestera joateko, luze sakatu  tekla. Memoriarik gabe geratzen ari bazara, baliteke gailuak aplikazio batzuk itxia. Gailuak datu guztiak gordetzen ditu aplikazioak itxi aurretik.
Aplikazioak exekutatzen ari badira bigarren mailan, bateria gehiago behar izaten da eta iraupena txikitu egiten da.
- Modu batetik bestera aldatzeko, sakatu  eta hautatu modua.
- **Normal** eta **Silencio** moduen artea aldatzeko, luze sakatu **#** Bi telefono-linea badituzu, horrela linea batetik bestera aldatuko da.
- Bidalitako azken deien zerrenda irekitzeko, sakatu .
- Ahots-komandoak erabiltzeko, luze sakatu  tekla.
- **Web** orriarekin konektatzeko, luze sakatu **0** tekla. Ikus 'Internet', 81. orrialdean.

Deiak egiteko/jasotzeko moduan dauden zuzeneko sarbideak ezagutzeko, ikus 'Deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboa', 22. orrialdean.


Teklatua blokeatzea (teklatuaren babesa)


- Blokeatzeko: deiak egiteko/jasotzeko moduan, sakatu  eta, gero, *****.
- Desblokeatzeko: sakatu  eta, gero, *****.
- Teklatua blokeatuta dagoenean pantailaren argia pizteko, sakatu .

Teklatua blokeatuta egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.



Erlojua

Sakatu  eta hautatu **Reloj**.

Alarma berria konfiguratzeko, hautatu **Opciones > Fijar alarma**. Sartu alarma-ordua eta sakatu **Aceptar**. Alarma aktibo dagoenean,  agertuko da.

Alarma geldiarazteko, aukeratu **Parar**. Alarma-seinaleak jotzen duenean, sakatu edozein tekla edo **Repetir**, alarma bost minutuz geldiarazteko. Horren ondoren, berriro joko du. Hori gehienez ere bost aldiz egin daiteke.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, gailua automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. **Parar** aukeratzan baduzu, deiak egiteko gailua aktibatu nahi ote duzun galdetuko dizu. Aukeratu **No** gailua itzaltzeko, edo **Sí** deiak egin eta jasotzeko. Ez aukeratu **Sí** telefono mugikorra erabiltzeak interferentziak edo arriskuren batzuk sor baditzake.

Alarma bertan behera uzteko, hautatu **Reloj > Opciones > Eliminar alarma**.

Erlojuaren doikuntzak

Erlojuaren doikuntzak aldatzeko, hautatu **Opciones > Ajustes** erlojuan. Ordua eta data aldatzeko, hautatu **Hora** edo **Fecha**.

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran erlojuak duen itxura aldatzeko, joan behera eta hautatu **Tipo de reloj > Analógico** edo **Digital**.

Telefonia mugikorraren sareak gailuan data, ordua eta ordu-eremuaren informazioa egunera dezan (sare-zerbitzua), joan behera eta hautatu **Actualizac. auto hora**. **Actualizac. auto hora** aukera doi dadin, gailua berrabiarazi egin behar da.

Alarmaren tonua aldatzeko, hautatu **Tono de alarma reloj**.

Egunez argia aurrezteko funtzioaren egoera aldatzeko, joan aukera honetara: **Ahorro de luz diurna**. Hautatu **Activar, Mi ciudad actual** aukeraren orduari ordubate gehitzeko. Ikus 'Munduko erlojua', 15. orrialdean. Eguneko argia aurrezteko funtzioa aktibatuta dagoenean, ☀️ bistaratuko da erlojuaren ikuspegi nagusian. Doikuntza hori ez da azaltzen **Actualizac. auto hora** aktibatuta badago.

Munduko erlojua

Ireki **Reloj** eta sakatu 🌐 nazioarteko erlojuaren ikuspegia irekitzeko. Ikuspegi honetan, hainbat hiritako ordua kontsulta dezakezu.

Zerrendan hiriak gehitzeko, hautatu **Opciones > Añadir ciudad**. Idatzi hiriaren izenaren lehen letrak. Bilaketa-eremua automatikoki irekitzen da, eta letra horiekin bat datozen izenen zerrenda bistaritzen da. Hautatu hiri bat. Zerrendan 15 hiri sar ditzakezu.

Dagokizun hiria konfiguratzeko, joan hiriaren izenera eta hautatu **Opciones > Mi ciudad actual**. Hiriaren izena erlojuaren ikuspegi nagusian bistaritzen da, eta gailuaren ordua aldatu egiten da hautatutako hiriaren arabera. Egiaztatu ordua zuzena dela eta zure ordu-eremuarekin bat datorrela.

Bolumenaren eta bozgorailuaren kontrola

Dei bat aktibo duzunean edo doinu bat entzuten ari zarenean, sakatu 🗣️ edo 🔊 bolumena igotzeko edo jaisteko.



Bozgorailuarekin distantzia laburretik hitz egin eta entzuteko aukera dago; ez dago gailua belarri ondoan izan beharrik. Soinu-aplikazioek lehenespenez erabiltzen dute bozgorailua.

👉 **Oharra:** bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

Dei batean bozgorailua erabiltzeko, egin deia eta hautatu **Opciones > Activar altavoz**.





Bozgorailua desaktibatzeko, dei bat aktibatuta dagoenean edo musika entzuten ari zarenean, hautatu **Opciones > Activar teléfono**.





Fitxategien kudeatzailea


Gailuaren funtzio askok memoria erabiltzen dute datuak gordetzeko. Hona hemen zenbait funtzio: aurkibidea, mezuak, irudiak eta dei-seinaleak, agendako oharrak eta zereginen oharrak, deskargatutako dokumentuak eta aplikazioak.

Memoriako tokia aurrez gailuaren memorian gordetako datu-kopuruaren araberakoa da. Memorian toki gehiago behar baduzu, memoriako txartela erabil dezakezu. Memoria-txartelatan datuak berriatz daitezke, hots, horietatik datuak ezabatu eta gorde daitezke.

Gailuaren memorian edo memoria-txartel batean (sartu baldin bada) fitxategiak eta karpetak bilatzeko, sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Gestor ar.** Gailuaren memoriaren ikuspegia irekitzen da (). Sakatu  memoria-txartelaren ikuspegia irekitzeko ().

Fitxategiak karpeta batera mugitu edo kopiatzeko, sakatu  eta  aldi berean fitxategi bat markatzeko, eta, gero, hautatu **Opciones > Mover a carpeta** edo **Copiar a carpeta**.


Fitxategi bat bilatzeko, hautatu **Opciones > Buscar** eta zein memoriatan bilatu nahi duzun; gero, idatzi fitxategiaren izenarekin bat datorren bilaketa-testua.

 **Iradokizuna:** Nokia PCSuite-n dagoen Nokia Phone Browser aplikazioa erabil dezakezu, zure gailuan dauden memoriak ikusteko. Ikus gailuarekin batera emandako CD-ROMa.

Memoriaren kontsumoa ikustea

Gailuan zer datu-mota dagoen eta horiek zenbat memoria kontsumitzen duten


ikusteko, hautatu **Opciones > Detalles de memoria**. Joan **Mem. libre** aukerara, gailuaren memorian zenbat toki dagoen ikusteko.

Memoriaren txartelean (baldin eta gailuan sartu baduzu) zenbat toki dagoen ikusteko, sakatu  txartelaren ikuspegia irekitzeko eta hautatu **Opciones > Detalles de memoria**.

Ez dago behar adina memoriarik: memorian lekua egitea

Gailuak jakinarazi egiten du gailuaren memoriaren edo memoria-txartel baten edukiera amaitzen ari denean.

Gailuan tokia egiteko, transferitu datuak memoria-txartel batera, Fitxategien kudeatzailearen bidez. Markatu mugitu behar dituzun fitxategiak eta hautatu **Mover a carpeta > Tarjeta memoria** eta karpeta bat.

 **Iradokizuna:** Gailuaren memorian edo memoria-txartelean tokia egiteko, erabili Nokia PC Suite-n dagoen Image Store aplikazioa, irudiak eta bideoklipak transferitzeko PC bateragarri batera. Ikus gailuarekin batera emandako CD-ROMa.

Datuak ezabatu eta memorian tokia egiteko, erabili **Gestor ar.** Aplikazioa edo joan dagokion aplikaziora. Adibidez, hauek ezaba ditzakezu:

- **Buzón entrada, Borrador** eta **Enviados** karpetetako mezuak, **Mensajes** aukeran.

- Gailuaren memoria berreskuratutako mezu elektronikoak
- Gordetako web orriak
- Gordetako irudiak, bideoak edo soinu-fitxategiak
- Harremanetarako informazioa
- Agendako datuak
- Deskargatutako aplikazioak. Ikus, halaber, 'Aplikazioen kudeatzailea', 117. orrialdean.
- Behar ez duzun beste edozein datu




Memoria-txartela tresna




Oharra: Gailu honek txartel hau erabiltzen du: Reduced Size Dual Voltage (1.8/3V) MultiMediaCard (RS-MMC). Beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili bakarrik bi tentsiotako RS-MMC txartelak. Kontsultatu fabrikatzaileari edo hornitzaileari, RS-MMC txartelaren bateragarritasuna zehazteko.

Erabili gailua Reduced-Size MultimediaCards (RS-MMC) txartel bateragarriekin bakarrik. Bestelako memoria-txartelak, adibidez Secure Digital txartelak (SD), ez dira memoria-txartelaren zirrikitan sartzen eta ez dira gailu honekin bateragarriak. Bateragarria ez den memoria-txartela erabiliz gero, txartela eta gailua honda daitezke eta txartelean gordetako datuak ere alda daitezke.

Ez utzi memoria-txartelak haurren eskueran.

Sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Memoria.** Memoria toki gehiago behar baduzu, memoriako txartela erabil dezakezu. Komeni da informazioaren segurtasun-kopiak maiz egitea gailuaren memoriatik memoria-txartelera. Gero, informazio hori berriz ezar daiteke gailuan.



Ezin duzu erabili memoria-txartela, zirrikituaren atea irekita badago.



Garrantzitsua: ez atera memoria-txartela martxan dagoenean, txartelera sartzen ari denean. Martxan dagoen bitartean txartela ateratzen bada, memoria-txartela, gailua eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

Gailuaren memoriako informazioaren segurtasun-kopiak memoria-txartelean kopiatzeko, hautatu **Opciones** > **Copia seg. mem. tel.**

Memoria-txarteleko informazioa gailuaren memorian leheneratzeko, hautatu

Opciones - Restaurar de tarj.



Iradokizuna: memoria-txartel bati izena aldatzeko, hautatu **Opciones > Nombre tarj. mem..**

Memoria-txartela formateatzea

Memoria-txartel bat berriz formateatzean, txarteleko datu guztiak behin betiko galtzen dira.

Memoria-txartel batzuk formateatuta etortzen dira, baina beste batzuk formateatu egin behar dira. Galdetu hornitzaileari memoria-txartela erabili baino lehen formateatu behar duzun.

Memoria-txartel bat formateatzeko, hautatu **Opciones > Format. tarj. mem..** Hautatu **Sí** berresteko. Prozesua amaitutakoan, idatzi izena memoria-txartelarentzat eta hautatu **Aceptar.**

Gailua pertsonalizatzea







Litekeena da zerbitzu-hornitzaileak eskatu izana funtzio batzuk telefonoan erabilgarri edo aktibatuta ez egotea. Hala bada, ez dira agertuko telefonoaren menuan. Baliteke gailuak berariaz konfiguratuta egotea zure sare-operadorearentzat. Beraz, agian, menuen izenak eta ordena ez datoz bat hemen azaltzen direnekin, ez eta haien ikonoak ere. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin informazio gehiago jaso nahi baduzu.

- Gehien erabiltzen dituzun aplikazioetan azkar sartzeko deiak egiteko/jasotzeko egoeraren pantaila erabiltzen baduzu, ikus 'Deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboa', 22. orrialdean.
- Deiak jasotzeko/egiteko moduan edo energia aurrezteko sistemarekin azaltzen den hondoko irudia aldatzeko, ikus 'Gailuaren itxura aldatzea', 22. orrialdean.



- Deia- seinaleak pertsonalizatzeko, kontsultatu 'Moduak: tonuak ezartzea', 20. orrialdean.
- Deiak egiteko/jasotzeko moduan ezkerreko eta eskuineko hautaketa-teklen eta desplazamendu-teklaren

ultsazioei esleitutako zuzeneko sarbideak aldatzeko, ikus 'Deiak egiteko/jasotzeko modua' 107. orrialdean. Desplazamendu-teklaren zuzeneko sarbideak ezin dira erabili itxarote aktiboa izeneko funtzioa aktibatuta badago.


- Deiak egiteko/jasotzeko moduan zaltzen den erlojua aldatzeko, sakatu , eta hautatu **Reloj > Opciones > Ajustes > Tipo de reloj > Analógico** edo **Digital**.
- Erlojuaren alarma-tonua aldatzeko, sakatu , eta hautatu **Reloj > Opciones > Ajustes > Tono de alarma reloj** eta tonu bat.
- Agendaren alarma-tonua aldatzeko, sakatu , eta hautatu **Agenda > Opciones > Ajustes > Tono alarma agenda** eta tonu bat.
- Hasierako agurraren ordez irudi bat edo testu bat jartzeko, sakatu , eta hautatu **Herrams. > Ajustes > Teléfono > Generales > Saludo inicial o logo**.
- Kontaktu bati dei-seinale jakin bat esleitzeko, sakatu , eta hautatu **Guía**.
Ikus 'Dei-seinaleak esleitzea kontaktuetarako', 37. orrialdean.
- Kontaktu bati markaketa bizkorreko tekla bat esleitzeko, sakatu zerbaki-tekla bat deiak egiteko/jasotzeko egoeran (**1** ahots-postontziari dagokio) eta, gero, 


Hautatu **Sí** eta, gero, hautatu kontaktu bat.




- Menu nagusia berrantolatzeko, menu horretan, hautatu **Opciones > Mover, Mover a carpeta**, edo **Carpeta nueva**. Gutxienerabiltzen dituzun aplikazioak karpetetara mugitu ditzakezu, eta gehien erabiltzen dituzunak menu nagusira.



Moduak: tonuak ezartzea

Dei-seinaleak, mezu-oharren tonuak eta bestelako tonuak hainbat gertakizun, ingurune edo dei-egile taldeen arabera doitzeko eta pertsonalizatzeko, sakatu  eta hautatu **Herrams. > Modos**. Hautatutako modua **Normal** ez bada, moduaren izena pantailaren goiko aldean bistaratzeko da, deiak egiteko/jasotzeko egoeran.

Modua aldatzeko, sakatu  deiak egiteko/jasotzeko egoeran. Joan aktibatu nahi duzun modura eta hautatu **Aceptar**.

Modu bat aldatzeko, sakatu , eta hautatu **Herrams. > Modos**. Joan modura eta hautatu **Opciones > Personalizar**. Joan aldatu nahi duzun doikuntzara eta sakatu  aukeratu irekitzeko. Memoria-txartelean gordetako tonuek  ikurra dute. Tonuen zerrenda ikusi eta tonuak banan-banan entzun ditzakezu hautaketa egiteko.

Sakatu edozein tekla, soinua eteteko.



Iradokizuna: tonuen zerrendan,

Descargars tonos aukerarekin gogokoen zerrenda bat irekitzen da. Hautatu gogoko bat eta konektatu web orri batera, tonuak deskargatzeko.

Modu berri bat sortzeko, hautatu **Opciones > Crear nuevo**.

Lineatik kanpo modua


Fuera de línea moduarekin gailua erabili daiteke haririk gabeko sarera konektatu gabe. **Fuera de línea** modua aktibatzen denean, haririk gabeko sarea desaktibatuta egiten da, eta **X** ikonoa azaltzen da seinalearen intentsitate-adierazlearen eremuan. Gailutik datozen eta gailura iristen diren telefonia mugikorrek seinale guztiak eragozten dira. Mezuak bidaltzen saiatuz gero, irteerako postontzian geratzen dira, geroago bidaltzeko.



Oharra: Fuera de línea moduan ezingo duzu deirik egin ezta deirik jaso ere (larrialdi-deiak izan ezik), eta ezingo dira erabili sare-estaldura behar duten bestelako funtzioak. Deiak egiteko, lehenbizi telefonoaren funtzioa aktibatu behar duzu profilak aldatuz. Gailua blokeatuta badago, markatu blokeatze-kodea.



Oharra: Fuera de línea modua erabiltzeko, gailuak piztuta egon behar du. Ez piztu gailua mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Fuera de línea modutik irteteko, sakatu  eta hautatu beste modu bat. Gailuak haririk gabeko transmisioak aktibatzen ditu (seinalearen intentsitatea nahikoa denean). Bluetooth-a aktibatu egin bada **Fuera de línea** moduan sartu baino lehen, desaktibatu egingo da. Bluetooth konexio bat automatikoki aktibatzen da, **Fuera de línea** modutik irtendakoan. Ikus 'Bluetooth konexioaren doikuntzak', 95. orrialdean.




Edukia beste gailu batera transferitzea

Kontaktuak, agenda, irudiak, bideoak eta soinu-klipak kopiatu ditzakezu Bluetooth konexio baten bitartez, Nokia Series 60 gailu bateragarri batetik.


Nokia N70 SIM txartelik gabe erabil daiteke. Gailua SIM txartelik gabe pizten denean, automatikoki aktibatzen da Fuera de línea modua. Hala, SIM txartela erabili ahal izango duzu beste gailu batean.

Sarrerak errepikatuta egon ez daitezen,

informazio-mota bera behin bakarrik transferi daiteke (adibidez, kontaktuak) beste gailutik Nokia N70era.

Transferentzia hasi aurretik, Bluetooth konektagarritasuna aktibatu behar duzu bi gailuetan. Sakatu  eta hautatu **Conectividad**. bi gailuetan. > **Bluetooth**. Hautatu **Bluetooth** > **Activado**. Eman izen bat gailu bakoitzari.

Edukia transferitzeko:




- 1 Sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Transfer**. Nokia N70ean. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei.
- 2 Gailuak Bluetooth konexioa duten beste gailu batzuk bilatuko ditu. Bilaketa amaitutakoan, hautatu beste gailua zerrendan.
- 3 Nokia N70ean kodea sartzeko eskatuko ditu. Idatzi kode bat (1-16 digitu) eta hautatu **Aceptar**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta hautatu **Aceptar**.
- 4 **Transfer**. aplikazioa beste gailura bidaltzen da, mezu moduan.
- 5 Ireki mezia **Transfer**. instalatzeko beste gailuan, eta egin jarraibideetako urratsak.
- 6 Nokia N70etik, hautatu zer kopiatu nahi duzun beste gailutik.

Edukia kopiatu egiten da beste gailuaren memoriatik eta memoria-txartelek Nokia N70era eta haren memoria-txartelera.

Kopiaren iraupena transferitu nahi den datu-kopuruaren arabera da. Kopia bertan behera utzi eta beste une batean jarraitzeko aukera duzu. **Transfer.** aplikazioa gailuaren menu nagusian gehitzen da.



Gailuaren itxura aldatzea

Pantailaren itxura aldatzeko (horma-papera eta ikonoak), sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Temas.** Aktibatuta dagoen gaia abiarazteko, erabili  **Temas** aukeran, gaiak pertsonaliza ditzakezu beste gaietako elementuak taldekatuz edo **Galeriako** irudiak hautatuz. Memoria-txartelaren gaiak  ikurrarekin adierazten dira. Memoria-txartelaren gaiak ezin dira erabili memoria-txartela gailuan sartuta ez badago. Memoria-txarteleko gaiak erabili nahi badituzu txartela bera erabili gabe, lehenbizi gorde gaiak gailuaren memorian.

Interneteko konexio bat ireki eta gai gehiago deskargatzeko, hautatu **Descargas temas.**

Gai bat aktibatzeko, joan gaira eta hautatu **Opciones** > **Aplicar.**

Gai baten aurretiazko ikuspegia irekitzeko, joan gaira eta hautatu **Opciones** > **Vista previa.**

Gai bat editatzeko, joan gaira eta hautatu **Opciones** > **Editar.** Aukera hauek alda ditzakezu:

Papel tapiz: deiak jasotzeko/egiteko egoeran pantailaren hondoa azalduko da.



Ahorro de energía: pantailan energia aurrezteko modua: data eta ordua edo testu pertsonalizatu bat. Halaber, ikus 'Pantaila', 107. orrialdean.

Imagen en "Ir a": Ir a aplikaziorako hondoko irudia.


Aukeratutako gaia leheneratzeko eta jatorrizko doikuntzak berriz ezartzeko, hautatu **Opciones** > **Restaurar tema or.** gaia editatzekoan.

Deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboa

Erabili deiak jasotzeko/egiteko modua, gehien erabiltzen dituzun aplikazioetara bizkor sartzeko. Lehenespene gisa, deiak egiteko/jasotzeko modu aktiboa aktibatuta dago.




Sakatu , hautatu **Herrams.** > **Ajustes** > **Teléfono** > **Modo en espera** > **En espera activo** eta sakatu  deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboa aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Deiak egiteko/jasotzeko moduaren pantailaren goiko aldean aurrez zehaztutako aplikazioak bistaritzen dira, eta beheko aldean, berriz, agenda, zereginak eta erreproduzitzaila.


Joan aplikazio edo zeregin batera eta sakatu .

Deiak egiteko/jasotzeko moduko desplazamendu-teklei dagozkien zuzeneko sarbide estandarrak ezin dira erabili deiak egiteko/jasotzeko modu aktiboan.

Aplikazioetarako aurrez zehaztutako zuzeneko sarbideak aldatzeko:

- 1 Sakatu , hautatu **Herrams.** > **Ajustes** > **Teléfono** > **Modo en espera** > **Aplics. espera activo** eta sakatu .
- 2 Nabarmendu aplikazio baten zuzeneko sarbidea eta hautatu **Opciones** > **Cambiar**.
- 3 Hautatu zerrendako beste aplikazio bat eta sakatu .

Zuzeneko sarbide batzuk finkoak dira eta ezin dira aldatu.



Deiak egitea

Ahots-deiak



Iradokizuna: Dei batean bolumena igotzeko edo jaisteko, sakatu edo **Silenciar micrófono** bolumenaren aukera hautatu baduzu, ezingo duzu bolumena doitu desplazamenduteklarekin. Bolumena doitzeko, hautatu **Audio** eta sakatu edo .

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan, idatzi telefono-zenbakia, aurrezenbaki eta guzti. Sakatu zenbaki bat ezabatzeko. Nazioarteko deiak egiteko, sakatu * bi aldiz + karakterea markatzeko (nazioarteko sarbide-kodea ordeztzen du) eta, ondoren, markatu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (hasierako zeroa kenduta, dagokionean) eta telefono-zenbakia.
- 2 Sakatu zenbaki horretara deitzeko.
- 3 Sakatu deia amaitzeko (edo deitzeko ahalegina bertan behera uzteko).

sakatzen baduzu, deia amaituko da, beste aplikazio bat aktibatuta egon arren.

Aurkibidetik dei bat egiteko, sakatu eta hautatu **Guía**. Bilatu deitzeko pertsonaren izena edo idatzi izenaren lehenbiziko letrak

Buscar eremuan. Bat datozen kontaktuak bistaratuko dira. Sakatu deitzeko. Aukeratu dei-mota: **Llamada de voz**.

SIM txarteletako kontaktuak kopiatu behar dituzu aurkibidean, deia hala egin ahal izateko. Ikus 'Kontaktuak kopiatzea', 36. orrialdean.

Ahots-postontzira deitzeko (sare-zerbitzua), luze sakatu **1** tekla deiak egiteko/jasotzeko moduan. Ikus, halaber, 'Deiak desbideratzea', 115. orrialdean.




Iradokizuna: Ahots-postontziko telefono-zenbakia aldatzeko, sakatu eta hautatu **Herrams**. > **Buzón voz** > **Opciones** > **Cambiar número**. Idatzi zenbakia (zerbitzu-hornitzaileak emana) eta hautatu **Aceptar**.


Deiak egiteko/jasotzeko moduan duela gutxi deitutako zenbakietara deitzeko, sakatu , deitu duzun edo deitzen saiatu zaren azken 20 zenbakien zerrenda irekitzeko. Joan zenbakira eta sakatu markatzeko.


Multikonferentzia-dei bat egitea


- 1 Deitu lehen solaskideari.

- 2 Beste solaskide bati deitzeko, hautatu **Opciones** > **Llamada nueva**. Lehen deia automatikoki atxikiko da.
- 3 Dei berriari erantzutean, multikonferentzian lehenbiziko solaskidea sartzeko, hautatu **Opciones** > **Multiconferencia**.
- Deira beste solaskide bat gehitzeko, errepikatu 2. urratsa eta hautatu **Opciones** > **Multiconferencia** > **Incluir en multiconf.** Gailuak sei solaskideren (zu barne) multikonferentzia-deiak egiteko aukera ematen du. Solaskideetako batekin elkarrizketa pribatua izateko, hautatu **Opciones** > **Multiconferencia** > **Privada**. Hautatu solaskidea eta hautatu **Privada**. Multikonferentzia-deia atxikita geratzen da gailuan. Gainerako solaskideek beren artean hitz egiten segi dezakete. Elkarrizketa pribatua amaitutakoan, hautatu **Opciones** > **Incluir en multiconf.** multikonferentzia-deira itzultzeko. Solaskide bat kanpoan uzteko, hautatu **Opciones** > **Multiconferencia** > **Excluir participante**, joan solaskidearengana eta hautatu **Excluir**.
- 4 Multikonferentzia-dei aktiboa amaitzeko, sakatu .

Telefono-zenbakia bizkor markatzea

Markaketa bizkorra aktibatzeko, sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Ajustes** > **Llamada** > **Marcación rápida** > **Activada**.

Markaketa bizkorreko tekletako bati telefono-zenbaki bat esleitzeko (**2 - 9**), sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Marc. ráp.**. Hautatu zein zenbakiri esleitu nahi diozun telefono-zenbakia eta hautatu **Opciones** > **Asignar**. **1** ahots-postontziari dagokio.

Deiak egiteko/jasotzeko moduan deitzeko, sakatu bizkor markatzeko tekla eta .

Ahots bidezko markaketa

Gailuak ahots-komando hobetuak onartzen ditu. Ahots-komando hobetuak ez dira hitz egiten den pertsonaren ahotsaren arabekoak, alegia, erabiltzaileak ez du grabaziorik egin behar aurrez. Horren ordez, gailuak ahots-grabazio bat sortuko du aurkibideko sarreretarako eta grabazio bakoitza sarrerekin erkatuko du. Gailuak ahotsa ezagutzeko duen sistema erabiltzaile nagusiaren ahotsari egokitzen zaio, ahots-komandoak hobeto ezagutzeko.


Kontaktu baten grabazioa kontaktuaren txartelean gordetako izena edo ezizena da. Grabazioa entzuko nahi baduzu, ireki kontaktuaren txartel bat eta hautatu **Opciones > Reprod. grabación.**

Dei bat grabazio bidez egitea



Oharra: ahots-identifikatzaileak erabiltzea zaila suerta daiteke inguru zaratatsuetan edo larrialdiko egoera batean. Horregatik, ez fidatu ahots bidezko markaketaz bakarrik kasu guztietarako.

Ahots bidezko markaketa erabiltzean, bozgorailua erabiltzen ari da. Ipini gailua zugi hurbil, grabatu beharrekoa esatean.

- 1 Ahots bidezko markaketa hasteko, luze sakatu  tekla. Esku librekoaren tekla duen esku libreko kit eramangarri bateragarria erabiltzen baduzu, luze sakatu tekla hori ahots bidezko markaketari ekiteko.
- 2 Soinu labur bat erreproduzitzen da eta **Hable ahora** oharra agertzen da. Esan argi kontaktuaren txartelean gordetako izena edo ezizena.
- 3 Gailuak erreproduzitu egiten du kontaktu ezagunaren grabazio artifiziala, hautatutako gailuaren hizkuntza, eta izena eta zenbakia bistaratzeko. 1,5 segundoz zain egon ondoren, gailuak zenbakia markatuko du.

Kontaktu ezaguna zuzena ez bada, hautatu **Siguiente** beste emaitza batzuk dituen zerrenda bat ikusteko, edo **Abandon.** ahots-markaketa bertan behera uzteko.


Izen berean hainbat zenbaki gorde badituzu, gailuak lehenetsitako zenbakia hautatuko du, definitu bada. Bestela, gailuak lehenbizikoa hautatuko du: **Móvil, Móvil (casa), Móvil (oficina), Teléfono, Teléfono (casa)** eta **Teléfono (oficina).**


Bideo-deiak

Bideo-deietan, dei-egileak zein hartzaileak beste pertsonaren bideoa ikus dezakete denbora errealean. Zuzeneko bideo-irudia edo gailuan kamerak hartutako bideo-irudia bideo-deiaren hartzaileari bistaratu zaio.

Kablerik gabe konekta zaitezke Bluetooth teknologiarekin bateragarriak diren beste gailu batzuetara. Gailu bateragarri horiek telefono mugikorrek, ordenagailuak eta hainbat ekipamendu izan daitezke, besteak beste, esku libreko kit eramangarriak eta autoko kitak. Erabili haririk gabe Bluetooth teknologia irudiak, bideoklipak, soinuklipak eta oharrak bidaltzeko; horrez gain, haririk gabe konektatu ahal izango duzu PC bateragarri batekin (adibidez, fitxategiak transferitzeko). Bestalde, irudiak inprimatzeko inprimagailu bateragarri batera konektatzeko aukera duzu (**Impr. Imágenes**). Ikus 'Irudiak inprimatzea', 52. orrialdean.

Haririk gabeko Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhin bidez komunikatzen direnez, ez da beharrezkoa gailuak elkarren bistan egotea. Nahikoa da gailu batetik bestera 10 metro egotea (32 oin); hala ere, konexioan oztopoek (adibidez, paretak) edo beste gailu elektroniko batzuek interferentziak eragin ditzakete.

Gailu hau Bluetooth 1.2 zehaztapenarekin batera daiteke, eta profil hauek onartzen ditu: Basic Printing Profile, Generic

Access Profile, Serial Port Profile, Dial-up Networking Profile, Headset Profile, Handsfree Profile, Generic Object Exchange Profile, Object Push Profile, File Transfer Profile, Basic Imaging Profile eta Human Interface Device Profile. Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili modelo honetarako Nokiak onartutako ekipoak bakarrik. Egiatzatu fabrikatzaileekin ekipo honekin zein gailu erabil daitekeen.




Glosarioa: profil (edo modu) bat zerbitzu edo funtzio bati dagokio, eta hainbat gailurekin konektatzeko modua definitzen du. Adibidez, Handsfree Profile modua esku libreko gailuaren eta telefonoaren artean erabiltzen da. Gailuak bateragarriak izan daitezen, profil berberak onartu behar dituzte.

Baliteke Bluetooth teknologia erabiltzean mugak izatea hainbat herritan. Galdetu tokiko administrazioari edo zerbitzu-hornitzaileari.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioak edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da eta bateriak gutxiago iraungo du.

Gailua blokeatuta dagoenean, ezingo duzu Bluetooth konektagarritasuna erabili. Ikus 'Segurtasuna', 112. orrialdean, gailuaren blokeoari buruz informazio gehiago lortzeko.

Bluetooth-aren konexio-doikuntzak

Sakatu  eta hautatu **Conectivid.** > **Bluetooth.** Aplikazioa lehenbizikoz irekitzean, gailuari izen bat esleitu beharko diozu. Bluetooth konexioa ezarri eta **Visibilidad mi teléf.** aukeratik **Mostrado a todos** aukerara aldatu ondoren, Bluetooth teknologia duten gailuen beste erabiltzaileek ikusiko dituzte gailua eta gailuaren izena.

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

Bluetooth: hautatu **Activado** edo **Desactivado.** Beste gailu batera haririk gabe, alegia, kablerik gabe, konektatzeko, lehenbizi **Activado** sakatu behar duzu, Bluetooth konektagarritasuna aktibatzeko, eta, gero, konexioa ezarri.

Visibilidad mi teléf.: beste Bluetooth gailuek zurea detekta dezaten, hautatu **Mostrado a todos.** Beste gailuek zure detekta ez dezaten, hautatu **Oculto.**

Nombre mi teléfono: editatu gailuaren izena.

Segurtasun-aholkuak




Bluetooth-a erabiltzen ari ez zarenean, definitu Bluetooth-a **Desactivado** gisa edo hautatu **Visibilidad mi teléf.** > **Oculto.**

Ez sortu loturarrik, gailu ezezagunekin.

Datuak bidaltzea Bluetooth konexio batekin

Aldi berean hainbat Bluetooth konexio egon daitezke aktibatuta. Adibidez, esku libreko kit batera konektatuta bazaude, aldi berean beste gailu bateragarri batera transferi ditzakezue fitxategiak.


Bluetooth konexioaren adierazleak

- Deiak egiteko/jasotzeko moduan  bistaratzen denean, adierazten du Bluetooth konexio bat aktibatuta dagoela.
-  keinuka hasten denean, gailua beste gailu batera konektatzen saiatzen ari dela esan nahi du.
-  etengabe bistaratzen denean, adierazten du Bluetooth konexioa aktibatuta dagoela.








Iradokizuna: Bluetooth konexio baten bidez testua bidaltzeko (testu-mezuen ordez), ireki **Notas**, idatzi testua eta hautatu **Opciones** > **Enviar** > **Vía Bluetooth.**

- 1 Ireki bidali nahi duzun elementua gordeta dagoen aplikazioa. Adibidez, irudi bat beste gailu bateragarri batera bidaltzeko, ireki **Galería**.
- 2 Hautatu elementua (adibidez, irudi bat) eta, gero, hautatu **Opciones > Enviar > Vía Bluetooth**. Irismen-eremuaren barruan dauden haririk gabeko Bluetooth teknologiadun gailuak pantailan bistaratuko dira banan-banan. Gailuaren ikonoa, gailuaren izena, gailu-mota eta izen labur bat bistaratuko dira.

 **Iradokizuna:** aurretik gailurik bilatu baduzu, lehenengo aurreko bilaketan aurkitutako gailuen zerrenda bistaratuko da. Bilaketa bat hasteko, hautatu **Más dispositivos**. Gailua deskonektatzen baduzu, zerrendatik kenduko da.

Gailuen ikonoak:

: ordenagailua; : telefonoa; : audioa edo bideoa; : esku libreko kit eramangarria; : beste zenbait.

Bilaketa eteteko, sakatu **Parar**. Gailuen zerrenda gelditu egingo da.

- 3 Hautatu konektatu nahi duzun gailua.
- 4 Beste gailuak datuak transmititzeko lotura ezarri behar badu, tonua jotzen du eta kode bat sartzeko eskatzen da. Ikus 'Gailuen arteko loturak ezartzea', 96. orrialdean.

- 5 Konektatu ondoren, **Enviando datos** oharra bistaratzen da.

Mensajes aukerako **Enviados** karpetan ezin dira gorde Bluetooth konexioaren bitartez bidalitako mezuak.





Iradokizuna: gailuen bilaketan, gailu batzuek helbide eskusiboak (gailuen helbideak) bakarrik bistara ditzakete. Zure gailuaren helbide eskusiboa zein den jakiteko, idatzi ***#2820#** kodea deiak egiteko/jasotzeko moduan.

Gailuen arteko loturak ezartzea





Glosarioa: loturak autentifikazioa esan nahi du. Bluetooth teknologia duten gailuen erabiltzaileek ados jarri behar dute, kode komun bat definitu behar dute, eta berbera erabili bi gailuak lotzeko. Erabiltzailearen interfazerik ez duten gailuek fabrikari ezarritako kodea dute.

Bluetooth-aren ikuspegi nagusian, sakatu  lotutako gailuen ikuspegia irekitzeko ().

Gailuak lotu baino lehen, sortu zure kodea (1-16 digitu), eta jarri ados beste gailuaren jabearekin kode bera erabiltzeko. Kode behin bakarrik erabiltzen da.


Gailu batekin lotura bat sortzeko, hautatu **Opciones > Disp. vincul. nuevo**. Irismen-eremuaren barruan dauden haririk gabeko Bluetooth teknologiadun gailuak pantailan bistaratuko dira banan-banan. Hautatu gailua eta sartu kodea. Kode bera sartu behar da beste gailuan. Lotura ezarri ondoren, gailua lotutako gailuen ikuspegian gordetzen da.

Lotura duten gailuak  ikurrarekin adierazten dira.

 **Iradokizuna:** Izen labur bat definitzeko (ezizena) lotutako gailu baterako, markatu gailua eta hautatu **Opciones > Asign. nombre corto** lotutako gailuen ikuspegian. Izen horrekin gailu jakin bat ezagutu ahal izango duzu bilaketatan edo gailu batek konexioa eskatzean.


Gailu bat baimendu edo ez-baimendu gisa konfiguratzeko, markatu ezazu eta hautatu aukera hauetako bat:

Fijar como autoriz.: gailuaren eta gailu honen arteko konexioak ezar daitezke zuk ezer jakin gabe. Ez da beharrezkoa onartzea edo baimentzea. Erabili egoera hori zure gailuetarako (adibidez, esku libreko kit eramangarri bateragarria edo PCa) edo konfiantzako gailuetarako.



 ikurrarekin gailu baimenduak adierazten dira, lotutako gailuen ikuspegian.

Fijar no autorizado: ezinbestekoa da beste gailu batetik konexiorako egindako eskaerak banan-banan onartzea.

Lotura bat bertan behera uzteko, markatu gailua eta hautatu **Opciones > Borrarr**. Lotura guztiak bertan behera utzi nahi badituzu, hautatu **Opciones > Borrarr todos**.

 **Iradokizuna:** gailu batera konektatuta bazaude eta gailu horrekiko lotura ezabatzen baduzu, lotura berehala ezabatu eta konexioa eten egiten da.

Datuak jasotzea Bluetooth konexio batekin

Datuak Bluetooth konexio baten bidez jasotzen dituzunean, tonuak jotzen du eta mezua onartzen duzun galdetzen dizu. Onartzen baduzu,  bistaratuko da eta elementua **Mensajes** aukerako **Buzón entrada** karpetan sartzen da. Bluetooth konexio baten bidez jasotako mezuek  ikonoa dute. Ikus 'Sarrerako postontzia: mezuak jasotzea' 65. orrialdean.

Bluetooth konektagarritasuna desaktibatzea

Bluetooth konektagarritasuna desaktibatzeko, hautatu **Bluetooth > Desactivado**.

PC konexioak

PCekin konektatzeko eta datu-komunikazioko hainbat aplikaziorekin erabil daiteke gailua. Nokia PC Suite-rekin kontaktuak, agenda eta zereginak sinkroniza ditzakezu, eta gainera irudiak transferi ditzakezu gailuaren eta PC bateragarri baten artean.

Beti sortu behar duzu PCaren konexioa, gailuarekin sinkronizatzeke.

Nokia PC Suite-ren instalazioari (bateragarria da Windows 2000 eta Windows XPrekin) buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus Nokia PC Suite-ren erabiltzailearen eskuliburua eta Nokia PC Suite-ren laguntza, CD-ROMeko instalazioaren atalean.

CD-ROMa

CD-ROMa automatikoki exekutatzen da PC bateragarri batean sartzen denean. Exekutatzen ez bada, hauxe egin: Ireki Windows-en arakatzaila, egin klik saguaren eskubiko botoiarekin CD-ROMa sartu duzun unitatean eta hautatu automatikoki erreproduzitzeko funtzioa.

Gailua modem gisa erabiltzea

Gailua modem gisa erabil daiteke mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko


edo PC bateragarri batekin Internetera konektatzeko, Bluetooth konexio bat edo datu-kable bat erabiliz. Nokia PC Suite-ren erabiltzailearen eskuliburuan instalazioa egiteko jarraibide xehatuak daude, CD-ROMeko modemaren aukeren atalean.





Iradokizuna: Nokia PC Suite lehenbizikoz erabiltzean, erabili Nokia PC Suite-rekin batera datorren konexio-laguntzailea, gailua PC bateragarri batera konektatzeko eta Nokia PC Suite erabiltzeko. Ikus salmenta-paketeen datorren CD-ROMa.



Konexioen kudeatzailea

Gailua GSM edo UMTS sareetan erabiltzean, baliteke aldi berean hainbat datu-konexio izatea aktibatuta. Sakatu  eta hautatu **Connectivid.** >

Gest. con. datu-konexioen egoera ikusteko, bidalitako eta jasotako datuen kopuruari buruzko xehetasunak ikusteko eta konexioak amaitzeko. **Gest. con.** irekitzean, honako hau ikus dezakezu:

- Irekitako datu-konexioak: datu-deiak (**D**) eta datu-paketeen konexioak () edo ().
- Konexio bakoitzaren egoera
- Konexio bakoitzean kargatutako eta deskargatutako datu-kopurua (datu-paketeen konexioetarako bakarrik)
- Konexio bakoitzaren iraupena (datu-deietarako bakarrik)



Oharra: baliteke zerbitzu-hornitzailearen deien fakturaren denbora erreala aldatzea, sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen eta abarren ondorioz.

Konexio bat amaitzeko, joan aplikazio horretara eta hautatu **Opciones > Desconectar**.

Irekitako konexio guztiak ixteko, hautatu **Opciones > Desconectar todas**.

Datu-konexio baten xehetasunak ikustea

Konexio baten xehetasunak ikusteko, joan konexiora eta hautatu **Opciones > Detalles**.

Nombre: Interneteko uneko sarbide-puntuaren izena (IAP) edo modemaren konexioaren izena, telefono bidezko konexioa bada.

Portad.: datu-konexio mota: **Llam. datos, GSM alta vel.** edo **Paqs. datos**.

Estado: konexioaren uneko egoera.

Conectando, Con. (inact.), Con. (activa), Retenida, Desconectan. edo **Desconect**.

Recibidos: gailuan jasotako datu-kantitatea (bytetan).

Enviados: gailutik bidalitako datu-kantitatea (bytetan).

Duración: konexioa martxan egon den denbora.

Velocid.: datuak bidaltzeko eta jasotzeko uneko abiadura (kb/s, kilobyte segundoko).


Marcac.: erabilitako telefono-sarbidearen zenbakia.

Nombre: erabilitako sarbide-puntuaren izena.

Compart. (ez da bistaritzen konexioa partekatua ez bada): konexio bera erabiltzen ari diren aplikazio-kopurua.



Urruneko sinkronizazioa

Sakatu  eta hautatu **Conectivid.** >

Sinc.. Sinc. aplikazioarekin oharrak, agendako datuak eta aurkibidea sinkroniza ditzakezu agendako eta helbide-liburuko aplikazioekin ordenagailu bateragarri batean edo Interneten.

Sinkronizazioko aplikazioak SyncML teknologia erabiltzen du sinkronizatzeke. SyncML aplikazioarekiko bateragarritasunari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan datuak sinkronizatu nahi dituzun agendako eta helbide-liburuko aplikazioaren hornitzailearekin.

Sinkronizatzeko doikuntzak testu-mezu berezi batean jaso ditzakezu. Ikus 'Datuak eta doikuntzak', 65. orrialdean.

Sinkronizazio berrien profilak sortzea

- 1 Profilik definitu ez bada, berria sortu nahi duzun galdetuko dizu gailuak. Hautatu **Sí**. Dauden profilez gain, beste bat sortu nahi baduzu, hautatu **Opciones > Perfil sinc. nuevo**. Hautatu aurrez zehaztutako doikuntzak erabili nahi dituzun edo lehendik dagoen profil baten balioak kopiaitu nahi dituzun, profil berri baterako balio dezaten.
- 2 Definitu hauek:

Nombre perfil sinc.: idatzi profila deskribatzen duen izen bat.

Portador de datos: hautatu konexio-mota: **Web** edo **Bluetooth**.

Punto de acceso (Portador de datos-en Web aukeratzen bada bakarrik bistaratzen da): hautatu datuen konexiorako erabiliko den sarbide-puntua.

Dirección de host: zerbitzari ostalariaren IP helbidea.

Jar zaitetz harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo sistema-administratzailearekin, balio zuzenak jakiteko.

Puerto (Portador de datos aukera Web gisa definitu bada bakarrik bistaratzen da): jar zaitetz harremanetan zerbitzu-

hornitzailearekin edo sistema-administratzailearekin, balio zuzenak jakiteko.



Nombre de usuario:

erabiltzailearen identifikatzailea sinkronizazio-zerbitzariarentzat. Jar zaitetz harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo sistema-administratzailearekin, identifikatzaile zuzena jakiteko.

Contraseña: idatzi pasahitza. Jar zaitetz harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo sistema-administratzailearekin, balio zuzena jakiteko.

Permitir petic. sinc.: hautatu **Sí** zerbitzariari sinkronizazio-prozesua hasieratzeko baimena eman nahi badiozu.

Aceptar petic. sinc.: hautatu **No** sinkronizazio-prozesu bat hasi aurretik zerbitzariak galdetzea nahi baduzu.

Autenticación red (Portador de datos aukera Web gisa definitu baduzu bakarrik azaltzen da): hautatu **Sí** erabiltzaile-izena eta pasahitza sartzeko sarea. Sakatu  erabiltzaile-izena eta pasahitza eremuak ikusteko. Sakatu  **Guía, Agenda** edo **Notas** hautatzeko.

- Hautatu **Sí** hautatutako datu-basea sinkronizatu nahi baduzu.
- **Base datos remota** aukeran, idatzi Agendaren, helbide-liburuxkaren edo zerbitzariaren urruneko oharren datu-basearen bide-izen zuzena.

- Hautatu **Tipo sincronización:** **Normal** (bi noranzkoetan), **Sólo con servidor** edo **Sólo con teléfono**.

- 3 Hautatu **Atrás** doikuntzak gordetzeko eta ikuspegi nagusira itzultzeko.

Datuak sinkronizatzea

Sinc. ikuspegi nagusian profil ezberdinak eta sinkronizatu behar diren datu-motak ikus ditzakezu:

- 1 Hautatu sinkronizazio-profil bat eta sakatu **Opciones > Sincronizar**. Sinkronizazioaren egoera pantailaren beheko aldean bistaratzen da.
Sinkronizazioa bertan behera utzi nahi baduzu amaitu aurretik, sakatu **Cancelar**.
- 2 Sinkronizazioa bukatzen denean, jakinarazi egingo zaizu. Sinkronizatzekeo prozesua amaitzen denean, hautatu **Opciones > Ver registro**, honen berri ematen duen erregistro-fitxategi bat irekitzeko: sinkronizazioaren egoera (**Completa** edo **Incompleta**) eta gailuan edo zerbitzarian erantsi, eguneratu, ezabatu edo baztertu (ez sinkronizatu) diren agendako edo aurkibideko sarrera-kopurua.



Gailuen kudeatzailea

Sakatu **☰** eta hautatu **Conectivid.** > **Gest. disp..** Sare-operadoreak, zerbitzu-hornitzaileak edo enpresako informazioa kudeatzeko sailak zerbitzariaren profilak eta beste konfigurazio-doikuntzak bidal diezazkizuke. Doikuntza horiek datu-konexioetarako sarbide-puntuak eta gailuaren hainbat aplikaziotan erabiltzen diren bestelako doikuntzak dira.

Zerbitzari batera konektatzeko eta gailuarentzako konfigurazio-doikuntzak jasotzeko, joan modu batera eta hautatu **Opciones > Iniciar configurac.**

Zerbitzu-hornitzaileen konfigurazio-doikuntzak jasotzea baimentzeko edo ukatzeko, hautatu **Opciones > Activar config.** edo **Desactivar config..**

Zerbitzarien profilen doikuntzak

Doikuntza zuzenak lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Nombre de servidor: sartu izen bat konfigurazio-zerbitzariarentzat.

ID de servidor: sartu identifikatzaile bakarra konfigurazio-zerbitzariarentzat.

Contraseña servidor: sartu pasahitz bat zerbitzarian zure gailua identifikatzeko.

Punto de acceso: hautatu sarbide-puntu bat, zerbitzarira konektatzean erabiltzeko.

Dirección de host: idatzi zerbitzariaren web helbidea.

Puerto: idatzi zerbitzariaren atakaz-zenbakia.

Nombre de usuario eta Contraseña: idatzi erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Permitir configurac.: zerbitzariaren konfigurazio-doikuntzak jasotzeko, hautatu **Sí**.

Autoaceptar todas: zerbitzariaren konfigurazioa onartu baino lehen gailuak berresteko eskatzea nahi baduzu, hautatu **No**.

Bulegoa



Kalkulagailua

Batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta erroketak egiteko eta ehunekoak kalkulatzeko, sakatu **↵** eta hautatu **Oficina > Calculad..**



Oharra: kalkulagailuak doitasun mugatua du, kalkulu errazak egiteko diseinatuta dago.

Zenbaki bat memorian gordetzeko (M ikurrarekin adierazten da), hautatu **Opciones > Memoria > Guardar**. Memoriaren zenbaki bat berreskuratzeko, hautatu **Opciones > Memoria > Recuperar**. Memoriako zenbaki bat ezabatzeko, hautatu **Opciones > Memoria > Borrar**.

Ehunekoak kalkulatzea

- 1 Idatzi ehunekoa kalkulatu nahi diozun zenbakia.
- 2 Hautatu **×**, **÷**, **-** edo **+**.
- 3 Sartu ehunekoa.
- 4 Hautatu **%**.



Bihurgailua

Neurriak (adibidez, luzera, **Longitud**) unitate batetik (yardak) bestera (metroak) bihurtzeko, sakatu **↵** eta hautatu **Oficina > Conversor**.

Kontuan izan bihurgailuak zehaztasun mugatua duela, eta biribiltzerakoan akatsak egin ditzakeela.

- 1 Joan **Tipo** eremura, eta sakatu **⊙** neurrien zerrenda irekitzeko. Joan erabili nahi duzun neurrira, eta sakatu **Aceptar**.
- 2 Joan **Unidad** lehen eremura eta sakatu **⊙**. Hautatu zein unitatetik bihurtu nahi duzun, eta sakatu **Aceptar**. Joan hurrengo **Unidad** eremura, eta hautatu zein unitatera bihurtu nahi duzun.
- 3 Joan **Cantidad** lehen eremura, eta idatzi bihurtu nahi duzun balioa. Hurrengo **Cantidad** eremua automatikoki aldatzen da bihurtutako balioa erakusteko. Sakatu **#** hamartar bat gehitzeko eta ***** +, - (tenperaturarako) eta E (berretzailea) ikurretarako.



Iradokizuna: Bihurketa alderantzizkatzeko, idatzi balioa **Cantidad** bigarren eremuan. Eraitza **Cantidad** lehen eremuan agertuko da.

Oinarrizko moneta eta truke-tasak definitzea

Moneta-bihurketak egiteko, oinarrizko moneta bat aukeratu behar duzu eta truke-tasak gehitu behar dizkiozu. Moneta-tasa beti 1 da. Moneta horrek zehazten ditu gainerako moneten bihurketa-tasak.

- 1 Hautatu **Conversor** > **Opciones** > **Cambios monedas**. Moneta-zerrenda bat irekiko da eta uneko oinarrizko moneta hasieran egongo da.



Iradokizuna: Moneta bati izena aldatzeko, joan moneta-aldaketaren ikuspegia, markatu moneta eta hautatu **Opciones** > **Renombrar moneda**.

- 2 Oinarrizko moneta aldatzeko, joan monetara eta hautatu **Opciones** > **Fijar moneda base**.
- 3 Gehitu bihurketa-motak. Joan monetara eta idatzi tasa berri bat; hau da, hautatutako oinarrizko monetaren unitate baten baliokide den monetaren unitate-kopurua.


Behar diren truke-tasa guztiak sartutakoan, moneta-bihurketak egin ditzakezu.



Oharra: oinarrizko moneta aldatzen baduzu, truke-tasa berriak sartu beharko dituzu, aurreko truke-tasa guztiak zeroan jartzen baitira.




Zereginak

Sakatu  eta hautatu **Oficina** > **Tareas** oharrak idazteko eta zereginen zerrenda bat edukitzeko.

Ohar bat gehitzeko, sakatu edozein tekla **Asunto** eremuan zeregina idazten hasteko.

Zereginaren mugaeguna definitzeko, joan **Fecha de vencimiento** eremura eta idatzi data bat.


Zereginari buruzko oharrari lehenetasuna ezartzeko, joan **Prioridad** eremura, eta sakatu  lehenetasuna ezartzeko. Lehenetasuneko ikonoak **!** (**Alta**) eta **↓** (**Baja**) dira. Ez dago ikonorik **Normal** aukerarako.

Zeregin bat egina dagoela markatzeko, markatu zeregina **Tareas** zerrendan eta hautatu **Opciones** > **Marcar como hecha**.

Zeregin bat egin gabe dagoela markatzeko, markatu zeregina **Tareas** zerrendan eta hautatu **Opciones** > **Marcar no hecha**.




Oharrak

Sakatu  eta hautatu **Oficina > Notas** oharrak idazteko. Oharrak bidal ditzakezu beste gailu bateragarri batzuetara. Gainera, jasotako testu-formatua duten fitxategiak (.txt formatua) **Notas** karpetan gorde daitezke.







Grabagailua

Sakatu  eta hautatu **Oficina > Grabadora** telefono-elkarrizketak eta hitz bidezko memorandumak grabatzeko. Telefono bidezko elkarrizketa bat grabatzen ari bazara, bi aldeek tonu bat entzungo dute bost segundoan behin.

Tresnak




Multimedia-tekla

Sakatu  multimedia-teklari esleitutako zuzeneko sarbidea irekitzeko. Sakatu berri  aurreko ikuspegira itzultzeko. Zuzeneko beste sarbide bat esleitzeko, sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Tecla mult.** > **Opciones** > **Cambiar.** Hautatu zerrendako aplikazio bat eta sakatu **Aceptar.**

Zuzeneko sarbidea erabilgarri izango da  sakatzen den bakoitzean.



Doikuntzak

Doikuntzak aldatzeko, sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Ajustes.** Joan doikuntzen multzo batera eta sakatu  irekitzeko. Joan aldatu nahi duzun doikuntza batera, eta sakatu .



Telefonoaren doikuntzak

Orokorrak

Idioma del teléfono: gailuaren pantailan testuen hizkuntza aldatzen baduzu, doikuntzak dataren eta orduaren formatuari eta kalkuluetan erabilitako bereizleei ere eragiten die. **Automático** aukeraren bidez, SIM txartelaren informazioarekin bat egiten duen hizkuntza hautatzen da. Pantailako testuen hizkuntza aldatu ondoren, gailua berrabiarazi egingo da.

Idioma del teléfono edo **Idioma de escritura** aukeren doikuntzak aldatzean gailuaren aplikazio guztiei eragiten die eta berriro aldatu arte indarrean egoten dira.

Idioma de escritura: hizkuntza-aldaketak testuak idazteko erabiltzen diren karaktere arruntei eta bereziei eragiten die, baita erabilitako testu prediktiboaren hiztegiari ere.


Diccionario: testua idazteko metodo prediktiboa **Activado** edo **Desactivado** gisa konfigura daiteke gailuaren editore guztietan. Testu prediktiboaren hiztegia ezin da erabili hizkuntza guztietarako.


Saludo inicial o logo: hasierako agurra edo logotipoa une batez bistaraten da gailua pizten den bakoitzean. Hautatu **Predeterminado** aurrez zehaztutako irudia erabiltzeko, **Texto** hasierako agurra idazteko (gehienez 50 letra) edo **Imagen Galeriatik** argazki bat edo irudi bat hautatzeko.

Ajustes originales: doikuntza batzuen jatorrizko balioak berrezar ditzakezu. Horretarako, blokeatzeko kodea behar duzu. Ikus 'Telefonoa eta SIMa', 113. orrialdean. Balioak berrezarritakoan, baliteke gailuak ohikoa baino denbora gehiago behar izatea pizteko. Aldaketak ez die eragiten dokumentuei eta fitxategiei.

Deiak jasotzeko/egiteko modua

En espera activo: erabili zuzeneko sarbideak deiak egiteko/jasotzeko moduan, pantaila nagusian, aplikazioetara sartzeko. Ikus 'Deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboa', 22. orrialdean.

Tecla selección izq.: ezkerreko hautaketa-teklari () zuzeneko sarbide bat esleitu nahi badiozu deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoenean, hautatu zerrendako aplikazio bat.

Tecla selecc. derecha: eskuineko hautaketa-teklari () zuzeneko sarbide bat esleitu nahi badiozu deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoenean, hautatu zerrendako aplikazio bat.

Aplics. espera activo: deiak egiteko/jasotzeko egoeran azaltzea nahi duzun aplikazioaren zuzeneko sarbideak hautatzeko. Doikuntza hau **En espera activo** modua aktibatuta badago bakarrik erabil daiteke.

Teklatuko zuzeneko sarbideak desplazamendu-teklaren konbinazioei esleitzeko aukera dago; horretarako, hautatu zerrendako aplikazio bat. Desplazamendu-teklaren zuzeneko sarbideak ezin dira erabili itxarote aktiboaren funtzioa aktibatuta badago.

Logo del operador: aukera hau azaltzen da operadorearen logotipoa jaso eta gordeta baldin baduzu. Operadorearen logotipoa azaltzea nahi duzun edo ez hauta dezakezu.

Pantaila

Brillo: pantailaren distira handitzeko edo txikitzeko. Pantailaren distira automatikoki egokitzen da inguruneko kondizioen arabera.

Tº esp. ahorro energ.: pantailan energia aurrezteko sistema aktibatu egiten da, horretarako ezarritako denbora-tartea igarotakoan.

Tiempo espera ilumin.: hautatu itxarotedenbora bat, eta, hori amaitzean, pantaila nagusiko hondoko argia desaktibatu egingo da.



Dei-doikuntzak


Envío del nº propio: telefono-zenbakia konfigura dezakezu, dei-hartzaileak zure zenbakia ikus dezan (**Si**) edo ikusi ez dezan (**No**). Bestela, sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak aukera hori konfigura dezake harpidetzen zarenean (**Fijado por la red**) (sare-zerbitzua).

Llamada en espera: deia zain zerbitzua aktibatu baduzu (sare-zerbitzua), eta hitz egiten ari zarenean beste dei bat sartzen bada, sareak abisatu egingo dizu. Hautatu **Activar** sareak deia zain zerbitzua aktiba dezan, **Cancelar** sareak zerbitzua desaktiba dezan edo **Verificar estado** funtzioa aktibatuta dagoen ala ez ikusteko.

Rechazar llam. SMC: hautatu **Sí** deitzen dizunari testu-mezu bat bidaltzeko, adieraziz ezin izan duzula erantzun. Ikus 'Deiei erantzutea edo ez onartzea', 30. orrialdean.





Texto del mensaje: idatzi dei bat onartzen ez duzunean bidaliko den testu-mezuko testua.

Imagen en videollam.: bideo-dei bat jasotzean bideozik ez bidaltzea ezartzeko. Hautatu irudi bat bideoaren ordeztu bistara dadin.


Rellamada auto: hautatu **Activada**, dei bat ezartzerik izan ez denean, gailua berriro saia dadin (gehienez hamar aldiz). Automatikoki berriz deitzeko aukera desaktibatuzeko, sakatu .

Resumen tras llam.: aktibatu funtzio hau gailuak azken deiaren gutxi gorabeherako iraupena une batez bistaratzea nahi baduzu.

Marcación rápida: hautatu **Activada** markaketa bizkorreko teklei esleitutako zenbakiak **2 - 9**) dagokion tekla luze sakatuta markatu ahal izateko. Bestalde, ikus 'Telefono-zenbakia bizkor markatzea', 25. orrialdean.

Cualq. tecla respond.: **Activada** aukeratzen baduzu, sarrerako dei bati erantzun ahal izango diozu edozein tekla une labur batez sakatuta, , ,  eta  teklak sakatuta salbu.

Línea en uso: SIM txartelak bi abonatu-zenbaki, hau da, bi telefono-linea, onartzean bakarrik agertzen da doikuntza hau (sare-zerbitzua). Hautatu zein linea erabili nahi duzun deiak egiteko eta testu-mezuak bidaltzeko. Edozein linea hautatuta ere, bi lineetako deiei erantzun diezaiekezu. **Línea 2** aukeratzen baduzu eta sare-zerbitzu horretara harpidetua ez bazaude, ezingo duzu deirik egin. Bigarren linea hautatzen baduzu, **2** azaltzen da deiak egiteko/jasotzeko moduan.

 **Iradokizuna:** telefono-linea batetik bestera aldatzeko, luze sakatu D tekla deiak egiteko/jasotzeko moduan.


Cambio de línea: linea hautatzeko funtzioa desaktibatuzko, hautatu


Desactivar SIM txartelak onartzen badu. Doikuntza hori aldatzeko, PIN2 kodea beharko duzu.



Konexioko doikuntzak

Datu-konexioak eta sarbide-puntuak

Gailuak datu-paketeen konexioak onartzen ditu (), adibidez GPRS GSM sarean.

 **Glosarioa:** GPRS (General packet radio service) zerbitzuak datu-paketeen teknologia erabiltzen du, eta, horren bidez, informazioa datu-pakete txikietan bidaltzen da sare mugikorraren bidez.

Datu-konexio bat ezartzeko, sarbide-puntu bat behar da. Hainbat sarbide-puntu mota defini daitezke, adibidez:


- MMS sarbide-puntua, adibidez, multimedia-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.
- Web aplikaziorako sarbide-puntua, WML edo XHTML orriak ikusteko.
- Interneterako sarbide-puntua (IAP) posta elektronikoa bidaltzeko eta jasotzeko.


Galdetu hornitzaileari nahi duzun zerbitzurako zer motako sarbide-puntua behar duzun. Datu-paketeen konexio-zerbitzuen erabilgarritasuna egiaztatzeko edo haietara harpidetzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.


Datu-paketeen konexioak GSM eta UMTS sareetan


Gailua GSM eta UMTS sareekin erabiltzen baduzu, hainbat datu-konexio izan ditzakezu aktiboaldi berean eta sarbide-puntuek datu-konexio bat parteka dezakete. UMTS sarean, datu-konexioak aktibatuta egoten dira ahots-deietan. Datu-konexio aktiboak egiaztatzeko, ikus 'Konexioen kudeatzailea', 98. orrialdean.


Adierazle hauek seinale-adierazlearen azpian azaltzen dira, erabiltzen duzun sarearen arabera:

 GSM sarea, datu-paketeak erabilgarri sarean.

 GSM sarea, datu-paketeen konexioa aktibatuta, datuak transferitzen ari dira.

 GSM sarea, datu-paketeen hainbat konexio aktibatuta.

 GSM sarea, datu-paketeen konexio bat atxikita (ahots-dei batean gerta daiteke hori, adibidez).

 UMTS sarea, datu-paketeak erabilgarri sarean.


³⁶/₁₁₆ UMTS sarea, datu-paketeen konexioa aktibatuta, datuak transferitzen ari dira.


³⁶/₁₁₆ UMTS sarea, datu-paketeen hainbat konexio aktibatuta.

³⁶/₇₂ UMTS sarea, datu-paketeen konexioa atxikita.


Sarbide-puntuen doikuntzak jasotzea

Baliteke zerbitzu-hornitzaileak sarbide-puntuaren doikuntzak bidaltzea testu-mezu batean. Bestalde, baliteke gailuak sarbide-puntua konfiguratuta izatea. Ikus 'Datuak eta doikuntzak', 65. orrialdean.

Zuzeneko beste sarbide bat sortzeko, sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Ajustes** > **Conexión** > **Puntos de acceso.**

Baliteke sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak sarbide-puntu bat babestu izana (). Sarbide-puntu babestuak ezin dira editatu eta ezabatu.

Sarbide-puntuak

 **Iradokizuna:** ikus 'Multimedia-mezuen eta mezu elektronikoen doikuntzak jasotzea', 64. orrialdean; 'Posta', 72. orrialdean eta 'Interneteko sarbidea', 81. orrialdean.

Ikus zerbitzu-hornitzaileak emango dizkizun jarraibideak.

Nombre de conexión: idatzi konexioaren izen deskribatzailea.

Portador de datos: hautatzen duzun datu-konexioaren arabera, doikuntza-eremu jakin batzuk bakarrik egongo dira erabilgarri. Bete **Debe definirse** (definitu egin behar da) esaldia edo izartxo gorria duten eremu guztiak. Gainerako eremuak hutsik utzi behar dira, zerbitzu-hornitzaileak besterik esaten ez badizu.

Datu-konexioak erabiltzeko, sarearen zerbitzu-hornitzaileak funtzio hori onartu behar du, eta, beharrezkoa bada, SIM txartelean aktibatua.

Nombre punto acceso (datu-paketeetarako bakarrik): UMTS eta datu-paketeen sareekin konektatzeko, beharrezkoa da sarbide-puntuaren izena. Izen hori sare-operadorearen edo zerbitzu-hornitzaileak emango dizu.

Erabiltzaile-izena: erabiltzaile-izena beharrezkoa izan daiteke datu-konexioa ezartzeko. Normalean zerbitzu-hornitzaileak ematen du. Erabiltzaile-izenak letra larriak eta xeheak bereizten ditu.

Petición contraseña: zerbitzari batera konektatzen zaren bakoiztean pasahitz berria idatzi behar baduzu edo gailuan zure pasahitza gorde nahi ez baduzu, hautatu **Sí**.

Contraseña: pasahitza beharrezkoa izan daiteke datu-konexioa ezartzeko. Normalean zerbitzu-hornitzaileak ematen du. Pasahitzak letra larriak eta xeheak bereizten ditu.

Autenticación: hautatu **Normal** edo **Segura**.


Página de inicio: konfiguratzen ari zarenaren arabera, idatzi multimedia-mezuen zentroaren helbidea edo web helbidea.

Hautatu **Opciones > Ajustes avanzados** doikuntza hauek aldatzeko:

Tipo de red: hautatu erabiliko duzun Interneteko protokolo-mota: **Ajustes de IPv4** edo **Ajustes de IPv6**. Beste doikuntzak hautatutako sare-motaren araberakoak dira.

Dirección IP teléfono (IPv4rako): gailuaren IP helbidea.

Servidores nombres: DNS primario: aukeran, idatzi DNS primario zerbitzariaren IP helbidea. **DNS secundario:** aukeran, idatzi DNS sekundario zerbitzariaren IP helbidea. Helbide horiek eskuratzeko, jarri harremanetan Interneteko zerbitzu-hornitzailearekin.

 **Glosario:** domeinu-izenen zerbitzua (DNS) Interneteko zerbitzu bat da; www.nokia.com eta antzeko domeinu-izenak IP helbide bihurtzen dituzte, adibidez: 192.100.124.195.

Direc. servidor proxy: definitu proxy zerbitzariaren helbidea.

Nº puerto de proxy: idatzi proxy zerbitzariaren atakaren zenbakia.

Datu-paketeak

Datu-paketeen doikuntzek datu-paketeen konexioa erabiltzen duten sarbide-puntu guztiei eragiten die.

Conex. paqs. datos: Si está disponible hautatzen baduzu eta datu-paketeekin bateragarria den sare batean badago, gailua datu-paketeen sarean erregistratzen da. Gainera, datu-paketeen konexio aktiboa ezartzea azkarragoa da (adibidez, mezuak bidaltzeko eta jasotzeko). **Si es necesario** hautatzen baduzu, gailuak behar duen aplikazio bat abiaraztean edo ekintzaren bat egitean erabiliko du soilik datu-paketeen konexioa. Datu-paketeen estaldurarik ez badago eta **Si está disponible** aukeratu baduzu, gailua datu-paketeen konexioa ezartzen saiatuko da aldizka.

Punto de acceso: sarbide-puntuaren izena nahitaezkoa da, gailua ordenagailurako datu-paketeen modem gisa erabiltzeko.

Konfigurazioak

Baliteke sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak doikuntza fidagarriak bidaltzea zerbitzarietarako, konfigurazio-mezu batean; bestela, baliteke doikuntza horiek SIM edo USIM txartelean gordeta egotea. Doikuntza horiek gailuan gorde, ikusi edo ezaba ditzakezu, **Configuraciones** aukeran.



Eguna eta ordua

Ikus 'Erlojuaren doikuntzak', 14. orrialdean.

Bestalde, ikus hizkuntzaren doikuntzak 'Orokorrak' atalean, 106. orrialdean.



Segurtasuna

Telefonoa eta SIM

Petición código PIN: aktibatuta dagoenean, kodea eskatuko du gailua pizten den bakoitzean. SIM txartel batzuek ez dute PIN kodearen eskaera desaktibatzen uzten. Ikus 'PIN kodeen eta blokeatze-kodeen glosarioa', 113. orrialdean.

Código PIN, Código PIN2 eta Código de bloqueo: PIN, PIN2 eta blokeatze-kodeak alda daitezke. Kode horiek **0** eta **9** bitarteko zenbakiak bakarrik izan ditzakete. Ikus 'PIN kodeen eta blokeatze-kodeen glosarioa', 113. orrialdean.

Ez erabili larrialdietarako zenbakien antzeko sarbide-kodeak; izan ere, ustekabeen, larrialdietarako zenbakiak marka ditzakezu.

Kode horietakoren bat ahaztu bazaizu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Período bloqueo auto: automatikoki blokeatzeko denbora-tartea defini dezakezu; hau da, denbora jakin batez deiak egiteko/jasotzeko egoeran egon ondoren gailua automatikoki blokeatzeko. Hala, telefonoa erabili ahal izateko, blokeatzeko kode zuzena sartu behar da. Idatzi zenbaki bat denbora hori minututan definitzeko, edo hautatu **Ninguno** aukera hori desaktibatzeko.

Gailua desblokeatzeko, sartu blokeatzeko kodea.

Gailua blokeatuta egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.



Iradokizuna: gailua eskuz blokeatzeko, sakatu **(i)**. Komandoen zerrenda irekitzen da. Hautatu **Bloquear el teléfono**.

Bloq. si cambia SIM: gailua konfiguratu dezakezu SIM txartel ezezagun bat sartzean blokeatzeko kodea eska diezazun. Jabearen txartel gisa ezagutzen dituen SIM txartelen zerrenda bat du gailuak.

Grupo cerr. usuarios: zein pertsona-talderi dei diezaiekezun edo zein pertsona-taldek dei zaitzaketen zehazteko (sare-zerbitzua).

Deiak erabiltzaile-talde itxi batentzat mugatuta badaude, gailuan programatutako larrialdietarako zenbaki ofizialera dei daiteke.

Confirmar servs. SIM: SIM txartelaren zerbitzuak erabiltzean baieztapen mezuak erakutsi ditzan konfiguratzeko (sare-zerbitzua).

PIN kodeen eta blokeatze-kodeen glosarioa

Kode horietakoren bat ahaztu bazaizu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

PIN kodea (Identifikazio pertsonaleko zenbakia): SIM txartela baimenik gabe erabil ez dadin. PIN kodea (4-8 digitu) SIM txartelarekin batera ematen dizute, normalean. PIN kodea hiru aldiz segidan gaizki sartuz gero, kodea blokeatu egiten da, eta desblokeatu egin behar da SIM txartela berriz erabili ahal izateko. Ikus PUK kodeari buruzko informazioa.

UPIN kodea: USIM txartelarekin batera dator. USIM txartela SIM txartelaren bertsio hobetua da. Bateragarria da UMTS telefono mugikorrekin. UPIN kodeak USIM txartela babesten du, baimenik gabe erabil ez dadin.

PIN2 kodea: kode hau (4-8 digitukoa) SIM txartel batzuekin ematen dute; gailuaren funtzio batzuk erabiltzeko behar da.

Blokeatze-kodea (segurtasun-kodea ere deitzen zaio): kode hau (5 digitu) gailua blokeatzeko erabil daiteke, baimenik gabe erabil ez dadin. Hasieran, blokeatze-kodea hau da: **12345**. Gailua baimenik gabe erabil ez dadin, aldatu blokeatzeko kodea. Gorde kode berria leku sekretu eta seguruan, gailutik urrun.


PUK (desblokeatzeko kode pertsonala) eta PUK2 kodeak: kode horiek (8 digitukoak) beharrezkoak dira, hurrenez hurren, PIN edo PIN2 kode blokeatuak aldatzeko. Kodeak SIM txartelarekin eman ez badizkizute, jarri harremanetan SIM txartela eman zizun operadorearekin, kodeak lortzeko.

UPUK kodea: kode hau (8 digitukoa) UPIN kode blokeatua aldatzeko behar da. USIM txartelarekin koderik eman ez badizute, jarri harremanetan USIM txartela eman zizun operadorearekin.


Ziurtagiriak kudeatzea

Ziurtagiri digitalek ez dute segurtasuna bermatzen; softwarearen jatorria egiaztatzeko balio dute.

☼ **Glosarioa:** ziurtagiri digitalak instalatutako softwarearen eta XHTML edo WML orrien jatorria egiaztatzeko erabiltzen dira. Bestalde, fidagarriak dira soilik ziurtagiriaren jatorria egiazkoa dela frogatzen bada.

Ziurtagiriak kudeatzeko leiho nagusian, gailuan gorde diren ziurtagiri baimenduen zerrenda bat ikusiko duzu. Sakatu  ziurtagiri pertsonalen zerrenda bat ikusteko, erabilgarri badago.

Ziurtagiri digitalak erabiltzea komeni da, baldin eta Interneteko banku batera edo beste gune edo urruneko zerbitzari batera konektatu nahi baduzu informazio konfidentziala transmititzen den ekintzak egiteko. Halaber, komeni da horiek erabiltzea, birus-arriskua edo bestelako software kaltegarrien arriskua murriztu nahi baduzu eta softwarea deskargatzen eta instalatzen duzun bitartean hura egiazkoa dela ziur egon nahi baduzu.

 **Garrantzitsua:** ziurtagiriak erabiltzeak murriztu egiten ditu urruneko konexioei eta software-instalazioei lotutako arriskuak, baina behar bezala erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatzeko. Ziurtagiri bat egoteak ez du berez babesik ematen. Ziurtagiri-administratzaileak ziurtagiri zuzenak, benetakoak edo fidagarriak izan behar ditu segurtasun gehigarria izateko.

Certificado caducado edo **Certificado no válido aún** testua agertzen bada, baliozkoa izan behar lukeen arren, egiaztatutako telefonoaren uneko ordua eta data zuzenak direla.

Xehetasun ziurtatuak kontsultatzea: benetakoak direla egiaztatzea

Zerbitzari baten identitatea zuzena dela jakin dezakezu, baldin eta zerbitzariaren ziurtagiri baten sinadura eta balio-epaia egiaztatutako badira.

Zerbitzariaren identitatea benetakoa ez bada edo gailuan segurtasun-ziurtagiri zuzenik ez badu, ohar bat bistaratuko da pantailan.

Ziurtagiri baten xehetasunak egiaztatzeko, joan ziurtagirira eta hautatu **Opciones > Detalles certificado**. Ziurtagiriaren xehetasunak irekitzean, baliozkotasuna egiaztatutako egiten da. Ohar hauetako bat azal daiteke:

- **Certificado no seguro:** ez da aplikaziorik konfiguratu ziurtagiria erabiltzeko. Ikus 'Segurtasun-doikuntzak aldatzea', 115. orrialdean.
- **Certificado caducado:** hautatutako ziurtagiriaren balio-epaia amaitu egin da.
- **Certificado no válido aún:** hautatutako ziurtagiriaren balio-epaia ez da hasi oraindik.
- **Certificado dañado:** ezin da ziurtagiria erabili. Jarri harremanetan ziurtagiri-emailearekin.

Segurtasun-doikuntzak aldatzea

Ziurtagiriaren edozein balio aldatu aurretik, ziurtatu haren jabea konfiantza osokoa dela eta benetan zerrendan agertzen den jabearena dela.

Joan baimen-ziurtagiri batera eta hautatu **Opciones > Ajustes seguridad**. Ziurtagiriaren arabera, hautatutako ziurtagiria erabil dezaketen aplikazioen zerrenda bat agertzen da. Adibidez:


- **Instalación Symbian: Sí:** ziurtagiriak Symbian sistema eragilearen aplikazio berri baten jatorria ziurtatzeko balio du.
- **Internet: Sí:** ziurtagiriak zerbitzariak ziurtatzeko balio du.
- **Instalación aplicaacs.: Sí:** ziurtagiriak Java aplikazio berri baten jatorria ziurtatzeko balio du.

Hautatu **Opciones > Editar ajustes seg.** Balioa aldatzeko.



Deiak desbideratzea


Desvíos sarrerako deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera desbideratzeko. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

- 1 Sakatu  eta hautatu **Herrams. > Ajustes > Desvíos**.

- 2 Hautatu desbideratu nahi dituzun deimotak: **Llamadas de voz, Llamadas de datos y vídeo** edo **Llamadas de fax**.

- 3 Hautatu desbideratze-aukera bat. Telefonoa okupatuta dagoenean edo sarrerako deiak hartzen ez dituzunean ahots-deiak desbideratzeko, hautatu **Si está ocupado**.

- 4 Aktibatu (**Activar**) edo desaktibatu (**Cancelar**) desbideratzeko aukera edo begiratu aukera aktibatuta dagoen (**Verificar estado**). Desbideratzeko hainbat aukera egon daitezke aktibatuta aldi berean.

Dei guztiak desbideratzen badira,  bistaratzen da deiak egiteko/jasotzeko egoeran.

Deiak blokeatzeko eta desbideratzeko funtzioak ezin dira aldi berean aktibatuta egon.



Murrizketak


Restricciones aukeraren bidez (sare-zerbitzua), gailuarekin egiten edo jasotzen diren deiak murriztz daitezke. Doikuntzak aldatzeko, murrizketa-pasahitz bat behar da (zerbitzu-hornitzaileak emango dizu). Hautatu murrizketa-aukera bat eta aktibatu (**Activar**), desaktibatu (**Anular**) edo egiaztatu aktibatuta dagoela (**Verific. estado**). **Restricciones** aukerak dei-murrizketak dei guztiei eragiten die, baita datuenei ere.

Deiak blokeatzeko eta desbideratzeko funtzioak ezin dira aldi berean aktibatuta egon.

Deiak murriztuta egon arren, larrialdietako zenbaki ofizial jakinetara deitu ahal izango da.



Sarea

Gailua automatikoki alda daiteke GSM saretik UMTS sarrera, eta alderantziz. GSM sarea bada,  bistaritzen da diiak egiteko/jasotzeko egoeran. UMTS sarea bada, berriz, **3G**.

Modo de red (operadoreak onartzen badu bakarrik): hautatu erabili nahi duzun sarea. **Modo dual** hautatzen baduzu, gailuak GSM edo UMTS sarea erabiliko du automatikoki, sare parametroen eta sare-operadoreen arteko desplazamendu-akordioen (roaming) arabera. Informazio gehiago eskuratzeko, galdetu sare-operadoreari.

Selección operador: hautatu **Automática** gailuak sare erabilgarri bat bilatu eta hauta dezan, edo **Manual** sarea sare-zerrenda batetik eskuz hautatzeko. Eskuz hautatutako sarearen konexioa galduz gero, gailuak errore-seinale bat egingo du eta berriro sare bat aukeratzeko eskatuko dizu. Aukeratutako sareak desplazamendu-akordioa izan behar du zure tokiko sarearekin; hau da, gailuko SIM txartelaren operadorearekin.




Glosarioa: desplazamendu-akordio bat sare-zerbitzuen hornitzaile biren edo gehiagoren arteko akordio bat da, zerbitzu-hornitzaile baten erabiltzaileek besteen zerbitzuak erabili ditzaten.


Mostrar info célula: Hautatu **Activada** gailuak jakinaraz dezan noiz dagoen sare mikrozelularren teknologian (MCN) oinarritutako sare zelular batean eta sare zelularri buruzko informazioa jasotzea aktibatzeko.




Osagarrien doikuntzak

Adierazleak diiak egiteko/jasotzeko moduan:

 Esku libreko kit eramangarri bat konektatuta dago.

 Audiofono-egokigailu bat konektatuta dago.

 Esku libreko kit eramangarria ezin da erabili, edo galdu egin da esku libreko kitarekin zegoen Bluetooth konexioa.

Hautatu **ML portátil**, **Adaptador audífono** edo **Man. libres Bluetooth**, eta aukera hauek izango dituzu:

Modo predetermin.: gailura ekipamendu jakin bat konektatzen duzun bakoitzean zein modutan aktibatzea nahi duzun aukeratzeko. Ikus 'Moduak: tonuak ezartzea', 20. orrialdean.



Respuesta auto: Gailuak bost segundo igarotakoan sarrerako dei bati automatikoki erantzun diezaion

konfiguratzeko. Dei-seinale mota **Un bip** edo **Silencio** bada, erantzun automatikoko funtzioa desaktibatu egingo da.



Ahots-komandoak

Ahots-komandoen bidez kontrolatu ahal izango duzu gailua. Gailuarekin batera erabil daitezkeen ahots-komando hobetuei buruz informazio gehiago izateko, ikus 'Ahots bidezko markaketa' 25. orrialdean.


Aplikazioak edo moduak hasteko ahots-komando hobetuak aktibatzeke, **Com. voz** aplikazioa eta **Modos** carpeta ireki behar dituzu. Sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Com. voz** > **Modos**; aplikazioetarako eta moduetarako grabazioak sortuko ditu gailuak. Ahots-komando hobetuak erabiltzeko, sakatuta eduki  tekla, eta esan ahots-komando bat. Zerrendan bistarutzen den aplikazioaren edo moduaren izena da ahots-komandoa.



Zerrendan aplikazioak gehitzeko, hautatu **Opciones** > **Aplicación nueva**. Aplikazioa hasteko beste ahots-komando bat gehitzeko, joan hara, hautatu **Opciones** > **Cambiar comando** eta sartu ahots-komando berria testu gisa. Ez erabili izen laburrik, laburdurarik eta akronimorik.

Ahots-komandoen doikuntzak aldatzeko, hautatu **Opciones** > **Ajustes**. Para apagar el sintetizador que reproduce las grabaciones y los comandos de voz reconocidos en el idioma del dispositivo, seleccione **Sintetizador** > **Desactivado**. Para restablecer el reconocimiento de voz cuando, por ejemplo, ha cambiado el usuario principal del dispositivo, seleccione **Eliminar mis adapts..**





Aplikazioen kudeatzailea

Sakatu  eta hautatu **Herrams.** > **Gestor**. Gailuan bi motatako aplikazioak eta softwarea instala daitezke:


- Java™ teknologian oinarritutako J2ME™ aplikazioak; jad o .jar ()luzapena dute.
- Beste aplikazio eta software batzuk, Symbian sistema eragilearekin () bateragarriak. Instalazio-fitxategiek .sis luzapena dute. Nokia N70 gailuarentzat berariaz diseinatutako softwarea bakarrik instalatu. Software-hornitzaileek askotan aipatuko dute produktu honen modelo-zenbaki ofiziala: Nokia N70-1.





Instalazio-fitxategiak transferi daitezke gailura ordenagailu bateragarrietatik; nabigatzen duzun bitartean deskarga daitezke, edo multimedia-mezu batean bidal ditzakezu, edo itsatsita posta elektronikoz, edo Bluetooth konexioaren bidez.


Nokia PC Suiten, Nokia Application Installer erabil dezakezu, gailuan edo memoria-txartel batean aplikazio bat instalatzeko. Microsoften Windows-eko esploratzailea erabiltzen baduzu fitxategiak transferitzeko, gorde fitxategia memoria-txartel batean (disko lokala).

 **Adibidea:** Instalazio-fitxategia mezu bati itsatsita jaso baduzu, joan postontzira, ireki mezua, ireki erantsitako fitxategien ikuspegia, joan instalazio-fitxategira eta sakatu  instalatzeko prozesua hasteko.

Aplikazioak eta softwarea instalatzea


 **Iradokizuna:** Nokia Application Installer ere erabil dezakezu aplikazioak instalatzeko; Nokia PC Suiten dago. Ikus gailuarekin batera emandako CD-ROMa.


Hauek dira aplikazioen ikonoak: , .sis aplikazioa; , Java aplikazioa; , aplikazioa ez da erabat instalatu; , aplikazioa memoria-txartelean instalatu da.

 **Garrantzitsua:** instalatu eta erabili bakarrik programa kaltegarrien aurkako babes eta segurtasun egokiak eskaintzen dituzten iturrietatik datozen aplikazioak eta softwareak.

Instalatu aurretik kontuan hartzekoak:


- Azplikazio-mota, bertsio-zenbakia eta aplikazioaren hornitzailea edo fabrikatzailea ikusteko, hautatu **Opciones > Ver detalles**.
 - Aplikazioaren segurtasun-ziurtagiriaren xehetasunak ikusteko, hautatu **Opciones > Ver certificado**. Ikus, 'Ziurtagiriak kudeatzea', 114. orrialdean.
 - Lehendik dagoen aplikazio baten eguneratzea edo konponketa duen fitxategi bat instalatzen baduzu, jatorrizko aplikazioa berrezartzeko, nahitaezkoa da jatorrizko instalazio-fitxategia edo ezabatutako software-paketearen segurtasun-kopia osoa izatea. Jatorrizko aplikazioa berrezartzeko, ezabatu eta, gero, instalatu berriz jatorrizko instalazio-fitxategitik edo segurtasun-kopiatik.
 - .jar fitxategia ezinbestekoa da Java aplikazioak instalatzeko. Fitxategi hori ez baduzu, baliteke gailuak deskargatzeko eskatzea. Aplikazioarentzako sarbide-punturik definitu ez bada, bat hautatzeko eskatuko dizu. .jar fitxategia deskargatzen ari zarenean, agian erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatuko dizkizu zerbitzarira sartzeko. Datu horiek aplikazioaren hornitzaileari edo fabrikatzaileari eskatu behar dizkiozu.
- 1 Ireki **Gestor**, eta joan instalazio-fitxategi batera.

Bestela, bilatu gailuaren memorian edo memoria-txartelean **Gestor ar.**-en bidez, edo ireki instalazio-fitxategia duen mezua **Mensajes > Buzón entrada** aukeran. Hautatu aplikazioa eta sakatu  instalatzen hasteko.

 **Iradokizuna:** nabigatzen ari zarenean, instalazio fitxategi bat deskarga eta instala dezakezu konexioa eten gabe.

2 Hautatu **Opciones > Instalar.**

Instalatzen ari den bitartean, prozesua nola doan erakusten du gailuak. Instalatzen ari den aplikazioak sinadura edo ziurtagiri digitalik ez badu, oharra agertzen da gailuan. Instalatzen jarraitu aurretik, ziurtatu aplikazioaren jatorria eta edukia seguruak direla.

Instalaturako aplikazio bat martxan jartzeko, bilatu menuan eta sakatu .

Sareko konexio bat abiarazteko eta aplikazioari buruzko informazio osagarria ikusteko, joan aplikazio horretara eta hautatu **Opciones > Ir a dirección web**, baldin badago.

Zer software-pakete instalatu edo ezabatu den, eta noiz, jakiteko, hautatu **Opciones > Ver registro.**

Zure instalazio-erregistroa laguntza-zentro batera bidaltzeko, zer instalatu edo ezabatu den ikusi ahal izan dezaten, hautatu **Opciones > Enviar registro > Vía mensaje de texto** edo **Vía correo** (posta elektronikoa behar bezala konfiguratu bada baino ez da erabilgarri).

Aplikazioak eta softwarea ezabatzea

Joan software-pakete batera, eta hautatu **Opciones > Eliminar.** Hautatu **Sí** berresteko.

Softwarea ezabatzen baduzu, jatorrizko instalazio-fitxategia edo ezabatutako software-paketearen segurtasun-kopia osoa beharko duzu berrezartzeko. Software-pakete bat ezabatzen baduzu, gerta liteke software horrekin sortutako dokumentuak irekitzeko aukerarik ez izatea.



Oharra: Beste software-pakete bat ezabatutakoaren menpe badago, litekeena da hark ere ez funtzionatzea. Informazio gehiago behar izanez gero, ikus instalaturako software-paketearen dokumentazioa.

Aplikazioen doikuntzak

Hautatu **Opciones > Ajustes** eta aukera hauek:

Instalación software: erabaki Symbian softwarea nola instala daitekeen:
Activada, Sólo firmadas edo **Desactivada.**

Verif. certs. en línea: aplikazio bat instalatu aurretik, berrikusi Interneteko ziurtagiriak.


Dirección web predet.: Interneten ziurtagiriak berrikusteko erabilitako helbide aurrez zehaztua.




Baliteke Java aplikazio batzuek telefono-dei bat, mezu bat bidaltzea edo sarbide-puntu jakin baterako sare-konexioa behar izatea beste datu edo osagai batzuk deskargatzeko. **Gestor** aukeraren ikuspegi nagusian joan aplikazio batera, eta hautatu **Opciones > Ajustes de conjunto** aplikazioari dagozkion doikuntzak aldatzeko.



Aktibazio-gakoak: copyright babesaren duten fitxategien erabilera


Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi, musika -dei-tonuak barne- eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.


Sakatu  eta hautatu **Herrams. > Claves de activación** zure gailuan dauden eskubide digitalak aktibatze gakoak ikusteko:

- Multimedia-fitxategiek baliozko gakoak () dituzte lotuta.
- Gakoak iraungi badira () edo fitxategia erabiltzeko epealdia igaro bada, ezin duzu jarraitu multimedia-fitxategia erabiltzen. Iraungitako aktibazio-gakoak (**Caducadas**) ikusteko, sakatu .

Multimedia-fitxategi bat erabiltzeko denbora gehiago izateko edo erabilera-denbora luzatzeko, hautatu aktibazio-gako bat eta hautatu **Opciones > Activar contenido**.

Aktibazio-gakoak ezin dira eguneratu Web zerbitzuen mezuak jasotzeko funtzioa gaitu gabe. Ikus 'Web zerbitzuen mezuak', 74. orrialdean.

Une jakin batean zer mezu erabiltzen ari ez diren jakiteko (**No usadas**), sakatu  bi aldiz. Erabili gabeko aktibazio-gakoek ez dute lotutako multimedia-fitxategirik gailuan gordeta.

Informazio xehatua ikusteko, baliozkotasun-egoera eta fitxategia bidaltzeko aukera adibidez, hautatu aktibazio-gakoa eta sakatu .

Arazoak konpontzea

Galderak eta erantzunak

Bluetooth konektagarritasuna


G: Zergatik ezin dut aurkitu lagun baten gailua?

E.: Egiaztatu Bluetooth konektagarritasuna bi gailuetan aktibatuta dagoela.

Egiaztatu bi gailuen arteko distantzia ez dela 10 metrotik gorakoa (32 oin) eta ez dagoela horriak ez trabarik bien artean.

Egiaztatu beste gailua ez dagoela 'Oculto' moduan. Egiaztatu bi gailuak bateragarriak direla.


G: Zergatik ezin da Bluetooth konexioa amaitu?

E.: Beste gailu bat badago zureari konektatuta, hura erabiliz edo Bluetooth konektagarritasuna desaktibatuz amaitu dezakezu konexioa. Sakatu  eta hautatu **Conectividad**. > **Bluetooth** > **Bluetooth** > **Desactivado**.


Multimedia-mezuak

G: Zer egin behar dut gailuak ezin badu multimedia-mezurik jaso memoria beteta dagoelako?


E.: Errore-mezuan adieraziko da behar den memoria-kantitatea: **No hay memoria suficiente para recuperar el mensaje. Borre antes algunos datos**. Zer datu-mota dituzun eta mota bakoitzak zenbat memoria behar duen ikusteko,

sakatu  eta hautatu **Herrams**. > **Gestor ar**. > **Opciones** > **Detalles de memoria**.

G: **Recuperando mensaje** oharra agertu da une batez. Zer gertatzen da?

E.: Multimedia-mezuen zentrotik mezu bat jasotzeko ahalegina egiten ari da gailua. Egiaztatu multimedia-mezuen doikuntzak egokiak direla eta ez dagoela akatsik telefono-zenbakietan eta helbideetan. Sakatu , eta hautatu **Mensajes** > **Opciones** > **Ajustes** > **Mensaje multimedia**.

G: Nola amaitu dezaket datu-konexioa gailua behin eta berriz martxan jartzen bada?

E: Gailuak datu-konexio bat egitea eragozteko, sakatu  eta hautatu **Mensajes** > **Opciones** > **Ajustes** > **Mensaje multimedia**. Sartzen diren multimedia-mezu guztiak bazter uzteko, hautatu **Recepción multimedia** > **Desactivada**. Aldaketa hori egindakoa, gailuak ez du multimedia-mezuekin lotutako inolako sare-konexiorik ezartzen.

Mezuak

G: Zergatik ezin dut kontaktu bat aukeratu?

E.: Gerta liteke kontaktu-txartelak telefono-zenbaki bat edo helbide elektronikoa ez izatea. Gehitu falta den informazioa txartean, hemen: **Guía**.

SIM txartelean bakarrik dauden sarrerak ez dira agertzen gidako direktorioan. SIM txarteleko kontaktuak gidan (**Guía**) kopiatzeko, ikus 'Kontaktuak kopiatzea',36. orrialdean.

Kamera

G: Zergatik daude lauso irudiak?

E.: Ziurtatu kameraren lentearen babes-leihoak garbi dagoela.

Agenda

G: Zergatik falta dira aste-zenbakiak?

E.: Agendaren doikuntzak aldatu badituzu, aste astelehena ez den beste egun batean hasteko, aste-zenbakiak ez dira bistaratuko.


Nabigazio-zerbitzuak

G: Zer egin behar dut mezu hau agertzen bada: **No existe ningún punto de acceso válido definido. Defina uno en los ajustes de Web?**



E.: Zuzendu nabigatzailearen doikuntzak Argibide gehiagotarako, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Erregistroa

G: Zergatik dago hutsa erregistroa?

E.: Baliteke iragazkiren bat aktibatu izana eta emanaldiaren komunikazio-erregistro batek ere ez betetzea eskakizunak. Emanaldi guztiak ikusteko, sakatu  eta hautatu **Mis cosas > Registro**. Joan **Registro** fitxara, eta hautatu **Opciones > Filtrar > Toda comunicación**.

G: Nola ezaba dezaket erregistroko informazioa?

E.: Erregistroa ezabatzeko, sakatu  eta hautatu **Mis cosas > Registro**. Joan **Registro** fitxara, eta hautatu **Opciones > Borrar registro**. Erregistroko edukia, azken deien erregistroa eta mezuak entregatu izanaren txostenak behin-betiko ezabatzeko, sakatu  eta hautatu **Mis cosas > Registro > Opciones > Ajustes > Duración del registro > Ningún registro..**

PCarekiko konektagarritasuna

G: Zergatik ezin dut konektatu gailua nire PCra?

E.: Egiatzatu PCan Nokia PC Suite instalatu dela eta funtzionatzen duela. Kontsultatu Nokia PC Suite-ren erabiltzaileentzako gida CD-ROMean. Nokia PC Suite programa instalatuta badago eta exekututzen ari bada, konexio-laguntzailea erabil dezakezu zure PCra konektatzeko; Nokia PC Suite-n dago. Nokia PC Suite-ren erabilerari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Nokia PC Suite-ren laguntza-funtzioa edo sartu www.nokia.com. web guneko laguntza-orrietan.

Sarbidetako kodeak

G: Zein da nire pasahitza PIN eta PUK blokeo-kodeetarako?



E.: Blokeatzeko aurrez zehaztutako kodea **12345** da. Kodea galdu edo ahaztu egin baduzu, jarri harremanetan hornitzailearekin.

PIN edo PUK kodea ahaztu edo galtzen baduzu, edo ez badituzu jaso, jarri harremanetan sare-zerbitzuen hornitzailearekin.

Pasahitzei buruzko informazioa jasotzeko, jarri harremanetan sarbide-puntuen hornitzailearekin; adibidez, Interneteko zerbitzuen hornitzailearekin (ISP), zerbitzu-hornitzaileekin edo sareko operadorearekin.

Aplikazioak ez du erantzuten

G: Nola itxi daiteke erantzuten ez duen aplikazio bat?

E:. Ireki aplikazioak aldatzeko leihoa  tekla sakatuta duzula. Ondoren, joan aplikaziora, eta sakatu  ixteko.

Bistaratzea

G: Zergatik falta dira puntuak edo zergatik agertzen dira kolorerik gabe edo distiratsu pantailan gailua piztutakoan?

E:. Pantaila-mota honen ezaugarria da hori. Baliteke pantaila batzuetan pixel edo puntu batzuk beti aktibatuta edo desaktibatuta egotea. Normala da, ez da akats bat.

Ez dago behar adina memoria

G: Zer agin dezaket gailuan memoria gutxi geratzen bada?

E:. Noizean behin elementu hauek ezabatzea komeni zaizu, memoria agortzea saihesteko:

- **Buzón entrada, Borrador** eta **Enviados** karpitetako mezuak, **Mensajes** aukeran.
- Gailuaren memorian berreskuratutako

mezu elektronikoak

- Gordetako nabigatzaileko orriak
- **Galería**-ko irudiak eta argazkiak

Kontaktuetako, agendako oharretako, deien kontagailuetako eta dei-kostuen kontagailuetako informazioa, jokoetako puntuazioa eta bestelako datuak ezabatzeko, joan dagokion aplikaziora. Hainbat elementu ezabatu eta mezu bat agertzen bada (**No hay suficiente memoria para efectuar operación. Borre antes datos. o Memoria baja. Borre algunos datos**), probatu mezuak banan-banan ezabatuz (txikienetik hasita).

G: Nola gorde ditzaket nire datuak ezabatu aurretik?

E:. Erabili metodo hauetako bat zure datuak gordetzeko:

- Erabili PC Suite ordenagailu bateragarri batean datu guztien segurtasun-kopia bat egiteko.
- Bidali irudiak zure helbide elektronikora eta gorde ordenagailuan.
- Bidali datuak gailu bateragarri batera Bluetooth konexio baten bidez.
- Gorde datuak bateragarria den memoria-txartel batean.

Bateriari buruzko informazioa

Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoa elikatu egiten da, berriz kargatzen den bateria baten bidez. Bateria baten errendimendu egokia bi edo hiru aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren soilik lortzen da. Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Hitz egiteko denbora eta deiak jasotzeko/egiteko denbora normalean baino laburragoak badira, aldatu bateria. Erabili Nokiak onartutako bateriak soilik, eta kargatu bateriak Nokiak gailu honentzat onartutako kargagailuak erabiliz.

Deskonektatu kargagailua entxufetik eta telefonotik erabili behar ez baduzu. Bateria erabat kargatuta dagoenean, kendu kargagailutik, gehiegi kargatzeak iraupena murrizt baitezake. Guztiz kargatuta dagoen bateria erabiltzen ez bada, bateria deskargatu egiten da denbora jakin baten ondoren.

Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.

Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Zirkuitulaburra gerta liteke objektu metaliko batek -txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat- zuzenean konektatzen baditu bateriaren terminal positibo (+) eta negatibo (-). (Bateriaren

banda metalikoak dira.) Hori gerta liteke, adibidez, patrikan edo poltsan beste bateria bat baduzu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Saia zaitetz beti 15 °C eta 25 °C (59 °F eta 77 °F) artean izaten. Baliteke, bateria hotzegi edo beroegi badago, telefonoak denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez bota bateriak sutara, balio ez dutenean, lehertu egin baitaitezke. Bestalde, bateriak lehertu egin daitezke, hondatuta badaude. Bete tokiko araudia, erabilitako bateriak botatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.

Nokia bateriak autentifikatzeko arauak

Zure segurtasunerako, erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. Nokia bateria jatorrizkoa izan dadin, eros ezazu Nokiaren saltoki baimenduetan; bilatu Nokia Original Enhancements (Nokiaren jatorrizko ekipiak) logotipoa salgaietan eta begiratu etiketari, urrats hauei jarraiki:

Lau urratsak behar bezala egin arren, bateria jatorrizkoa den berme osorik

ez dugu. Eskuratutako Nokia bateria benetakoa eta jatorrizkoa ez dela susmatzen baduzu, ez duzu erabili behar. Hurbilen duzun Nokiaren hornitzailearengana edo saltokira eramatea eta laguntza eskatzea gomendatzen dizugu. Nokiaren hornitzaile edo saltoki baimenduak egiaztatuko du bateria jatorrizkoa den. Ezin bada frogatu bateria jatorrizkoa dela, eraman berriro eskuratu duzun tokira.

Hologramaren egiazkotasuna


- 1 Ikus hologramaren etiketa: angelu batetik, elkartzen diren eskuen irudia ikusiko da (Nokiaren ikurra), eta, bestetik, Nokia Original Enhancements-en logotipoa (Nokiaren jatorrizko ekipamendua).



- 2 Okertu holograma logotipoaren ezkerrean, eskuinera, gora eta behera, eta 1, 2, 3 eta 4 puntuak ikusi behar dira alboetan.



- 3 Harraskatu etiketaren alde batean, eta 20 digituko kode bat azalduko da (adibidez, 12345678919876543210). Bira eman bateriari zenbakiak gora begira gera daitezzen. 20 digituko kodea irakurtzeko, ikus, lehenbizi, goiko lerroko zenbakiak eta, gero, behekoak.



- 4 Egiaztatu 20 digituko kodearen baliotasuna, www.nokia.com/batterycheck Nokiaren web orriko jarraibideei jarraiki.

Testu-mezu bat sortzeko, idatzi 20 digituko kodea (adibidez, 12345678919876543210) eta bidali +44 7786 200276 zenbakira.



Operadore nazionalai eta nazioartekoei dagozkien karguak aplikatuko dira.

Hala, kodea kautotu daitekeen edo ez adieraziko dizun mezu bat jaso beharko zenuke.

Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?

Hologramaren etiketarekin ezin baduzu egiaztatu Nokia bateria benetakoa den, ez erabili, eta eraman hurbilen duzun Nokiaren hornitzaile baimenduarengana edo saltokira, laguntza eskatzeko.

Arriskutsua izan daiteke fabrikatzaileak onartzen ez dituen bateriak erabiltzea, gailuaren errendimendua hondatu eta gailua eta ekipamendua honda dezakete. Halaber, gailuaren hainbat onarpen edo berme baliogabetu ditzake.

Nokiaren jatorrizko bateriei buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus www.nokia.com/battery.

Zainketa eta mantentze-lana

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da, eta arduraz zaindu behar da. Iradokizun hauek lagunduko dizute zure bermearen estaldura babesten.

- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte. Telefonoa bustitzen bada, kendu bateria eta itxaron telefonoa erabat lehortu arte bateria berria jartzeko.
 - Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek eta osagai elektronikoak hondatu egin litezke.
 - Ez gorde telefonoa leku beroetan. Tenperatura altuek gailu elektronikoaren iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
 - Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoaren plakak kalte ditzake.
 - Ireki telefonoa beti gidaliburu honetako jarraibideen arabera.
 - Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakar erabiltzen baduzu, barne-zirkuituen plakak eta pieza mekaniko ahulenak puskatu egin litezke.
 - Ez erabili produktu kimiko kaltegarriak, disolbagarriak edo garbigarriak sendorik telefonoa garbitzeko.
 - Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.
 - Erabili zapi leun, garbi eta lehor bat lenteak garbitzeko (adibidez, kamera, hurbiltasun-sentsorea eta argi-sentsorea).
 - Erabili telefonoak berez daukan antena edo baimendutako ordezko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokete telefonoari eta irrati- aparatuei buruzko araudia urra dezakete.
 - Ez erabili kargagailurik aire zabalean.
 - Gorde nahi dituzun datuen (adibidez, kontaktuak edo agendako oharrak) segurtasun-kopia egin beti, gailua hornitzaile bati bidali baino lehen.
- Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.

Segurtasunari buruzko informazio gehiago

Gailuak eta haren ekipamenduak pieza txikiak izan ditzakete. Ez utzi haurren eskueran.

Ingurune operatiboa

Errespeta ezazu zu zauden tokian indarrean dagoen araudi berezia eta itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean, interferentziak eragin ditzakeenean edo arriskutsua izan daitekeenean. Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik. Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzetik gutxienez 1,5 cm-ra (5/8 hazbete) edukitzen denean ere. Gailua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik lehen aipatutako distantziara izan behar duzu.

Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantziei buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoez, telefono mugikorrek barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, IM kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IM kanpo-seinaleekiko sentikorrek diren ekipoa erabiltzea.

Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15,3 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Gomendio horiek ikerketa independenteen eta hariarik gabeko gailuen ikerketa teknologikoen ondorioak dira. Taupada-markagailua duten pertsonak:

- Taupada-markagailutik 15,3 cm-ra (6 hazbete) baino gehiagora izan behar dute gailua beti.
- Telefonoa ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelara.
- Taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute telefonoa, interferentzia-arriskua ahal bezainbeste murrizteko.

Interferentziaren bat gertatzen ari dela susmatzen baduzu, itzali gailua eta urrundu.

Entzuteko gailuak: Zenbait telefono mugikor digitaletan interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoak, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoak –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak, airbag-sistemak). Informazio gehiago nahi izanez gero, egiaztatu zure autoaren edo zuk erantsitako ekipamenduen alderdi horiek fabrikatzailearekin edo haren agente komertzialarekin.

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta telefonoari aplikatzen zaion bermea baliogabetu. Egiaztatu maiz zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipa osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegiratu eta garraiatu likido sukoiarik, gasik eta material lehegarririk telefonoa eta haren piezak edo ekipamendua dauden leku berean. Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean.

Telefonia mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago hegazkinetan telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Telefono mugikorrak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Leherzako arriskua dagoen tokietan autoaren motorra itzaltzea gomendatzen dute normalean. Eremitan ezta edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere. Itzali telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan (adibidez, zerbitzuguneetako hornigailuen ondoan). Errespetatu erregai-deposituetan, biltegiratzeko eta banatzeko eremuetan, instalazio kimikoetan eta leherketa-eremuetan irri-ekipoak erabiltzeko dauden murrizketak. Leherketak gerta daitezkeen gunek argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak; produktu kimikoak biltegiratu eta garraiatzeko instalazioak; petrolio-gas likidotua (adibidez, propanoa edo butanoa) erabiltzen duten ibilgailuak; eta airean partikula edo elementu kimikoak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak) dauden eremuak.

Larrialdi-deiak



Garrantzitsua: Telefono mugikorrak, hau barne, irrati-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin ibiltzen dira. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (larrialdi medikoetarako adibidez).

Larrialdi-deia egiteko:

- 1 Telefonoa piztuta ez badago, piztu.
Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
- 2 Sakatu amaitzeko tekla behar adina aldiz, pantaila ezabatu eta telefonoa deitzeko prest jarri arte.
- 3 Markatu tokiko larrialdi-zenbakia. Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
- 4 Sakatu deitzeko tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gidaliburu hau edo galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Larrialdi-dei bat egitean, eman beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta zehatzen. Litekeena da zure telefono mugikorra izatea istripuaren lekuko komunikazio-bitarteko bakarra. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiria.

GAILU HONEK IRRATI-UHINEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU.

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauak (ICNIRP) gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiarako (IM) esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta fabrikatuta dago. Muga horiek zuzentzara zehatz batzuen zati dira, eta herritarrentzat baimenduriko IMren energia-mailak ezartzen dituzte. Erakunde zientifiko independenteek garatu dituzte zuzentzara horiek, azterlan zientifikoaren aldizkako ebaluazio zehatzaren bidez. Arau horiek segurtasun-tarte handia dute, pertsona guztien segurtasuna bermatzeko, pertsonak duten adina edo osasun-egoera kontuan hartu gabe.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR (Specific Absortion Rate) izeneko unitatearekin neurtzen da. Arauetan zehaztutako muga-tasa 2,0 W/kg (watt/kilogramo) da*. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienara transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. SAR ziurtatutako potentzia-maila handienara zehazten den arren, telefonoaren funtzionamenduko tasa erreala gehienezko balioaren azpitik egon ohi da nabarmen.

Telefonoa hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eta sarera konektatzeko behar den potentzia bakarrik erabiltzeko diseinatuta dagoelako gertatzen da hori. Normalean, oinarri-estazio batetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta txikiagoa da energia-emisioa.

Gailu honentzat ezarritako SAR balio altuena, telefonoa belarrian jarrita erabiltzen denerako, 0,95 W/kg da. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko proba-eskakizunen eta informazioaren eta sarearen bandaren arabekoak dira. Gailuarentzat beste osagarri eta ekipamenduak erabiltzen badira, beste SAR balio batzuk izan daitezke. SARI buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

* Jendeak erabiltzen dituen telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 W/kg da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. Jarraibideek segurtasun-tarte nabarmena dute, jendearentzat babes gehigarria ezartzen duena eta neurrien edozein aldaketa kontuan hartzen duena. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko informazio-eskakizunen eta sarearen bandaren arabekoak dira. Beste eskualdeetako absortzio espezifikoaren tasaren inguruko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu produktuari buruzko informazioa www.nokia.com helbidean.

Aurkibide alfabetikoa

A			
ahots bidezko markaketa	25	ez onartu	30
ahots-komandoak	117	bideo-erreproduzitzaila	
ahots-mezuak	24	Ikus RealPlayer	
ahots-postontzia	24	bideoklipak	49
deiak ahots-postontzira desbideratu ..	115	blokeatzeko kodea	113
telefono-zenbakia aldatu	24	Bluetooth	94
aktibazio-gakoak	120	bi gailu konektatu,	
alarmak		lotu	96
iratzargailua	14	desaktibatu	97
telefono-aurkibidea	79	esku libreko kit eramangarria	116
aplikazioak, Java	117	fabrikan ezarritako kodea	96
aplikazioak		gailuaren helbidea	96
instalatu	118	kodea, glosarioko azalpena	96
audio-egokigailuaren doikuntzak	116	lotu	96
azken deiak		segurtasuna	95
Ikus erregistroa		bolumenaren kontrola	15
		bozgorailua	15
		deian	24
B		borrar pantalla	
berehalako mezuak	89	Ikus deiak egiteko/jasotzeko egoera	
berehalako mezuak bidali	9	bozgorailua	15
blokeatu	91		
erabiltzailea identifikatu, glosarioko		C	
azalpena	92	cache, ezabatu	85
mezuak grabatu	91	CD-ROMa	98
taldeak	93	copyright-en babesa	
zerbitzari batera konektatu	90	ikus aktibazio-gakoak	
bereizmena, glosarioko azalpena	42		
beste telefono bateko edukia transferitu ...	21	D	
bidali		data	14
bideoklipak	48	datuen konexioa	
irudiak	13, 40	amaitu	99
kontaktuen txartelak, bisita-txartelak36		xehetasunak	99
bideoak editatu		datu-paketeen konexioak	98
bideoklipak pertsonalizatu	46	doikuntzak	111
efektuak erantsi	46	GPRS, glosarioko azalpena	109
soinu-klipak erantsi	46	deiak jasotzeko/egiteko egoera	19
trantsizioak erantsi	46	deiak	
bideodeia	26	deiak desbideratzeko doikuntzak	115
erantzun	30		

doikuntzak	108	erregistroa	
iraupena	33	edukia ezabatu	34
jasotakoak	32	iragazi	34
markatutako zenbakiak	32	erregistroaren iraupena	34
nazioartekoa	24	errepikatu	14
transferentzia	31	esku libreko funtzioa	
dei-seinaleak		ikus bozgorailua	
dei-seinale pertsonalak	37	eskubide digitalen kudeaketa, DRM	
testu-mezu batean jaso	66	ikus aktibazio-gakoak	
distira		eszenak	
kameraren doikuntzak	44	argazki-eszenak	43
pantaila	107	bideo-eszenak	43
DNS, domeinu-izenen zerbitzaria, glosarioko			
azalpena	111	F	
Doikuntzak		filmak, muvee-ak	
audio-egokigailua	116	muvee pertsonalizatuak	55
blokeatzeko kodea	113	muvee bizkorak	55
Bluetooth konexioa	95	fitxategien kudeatzailea	15
BM	90, 93	fitxategi-formatuak	
data eta ordua	112	.jar	118
datuen konexioa	109	.sis	117
deiak baztertu	115	JAD fitxategia	117
deiak desbideratu	115	JAR fitxategia	117
esku libreko kit eramangarria	116	RealPlayer	53
hizkuntza	106		
jatorrizko doikuntzak	107	G	
pantaila	107	gaiak	22
pantaila-babesa	107	galeria	
PIN kodea	113	album berria sortu	51
sarbidetokodeak	112	fitxategiak albumenean erantsi	51
sarbidetopuntuak	110	fitxategiak albumetan ordenatu	51
telefonoa pertsonalizatu	19	irudiak eta bideoak ikusi	50
telefono-aurkibidea	79	gogokoak	82
UPIN kodea	113	gogorarazlea	
UPUK kodea	113	ikus aurkibidea, alarma	
ziurtagiriak	114	grabazioak	117
E		deiak egin	26
EL eramangarriaren doikuntzak	116		
erlojua	14	I	
alarma	14	Interneteko sarbidetopuntuak (IAP)	
doikuntzak	14	ikus sarbidetopuntuak	

Internet

Ikus web-a

IP helbideak, glosarioko azalpena	111
irratia	75

J

Java

Ikus aplikazioak, Java

K

Kamera

bideoak editatu	46
bideo-grabagailuaren doikuntzak	45
bideoklipak gorde	45
distira doitu	39, 44
eszenak	42
flash doikuntzak	39
flasha	41
irudiak bidali	13, 40
irudien kameraren doikuntzak	42
irudien konfigurazioko doikuntzak	39, 42
kolorea eta argiztapena doitu	42
segidako modua	41
tenporizadorea	41

kamerak

kodeak	112
blokeatzeko kodea	113
PIN kodea	113
PIN2 kodea	113
segurtasun-kodea	113

konexioaren doikuntzak

kontaktuak	35
bidali	36
irudiak sartu	36

kontaktu-txartelak

DTMF tonuak gorde

Kopiatu

kontaktuak SIM txartelaren eta telefonoko memoriaren artean	36
testua	62

L

laguntza aplikatu	12
-------------------------	----

M

markaketa bizkorra	25
markaketa finkoa	37
memoria	
memorian lekua egin	16, 32, 33
memoriaren kontsumoa ikusi	16
memoria-txartela	17
menua, berrantolatu	20

mezuak

multimedia-mezuak	62
posta	62
testu-mezuak	62
mezuen postontzia	66
automatikoki berreskuratu	68
mezuen urruneko postontzia	66
moduak	20
multikonferentzia-deia	24
multimedia-fitxategiak	
atzera egin	54
bizkor aurreratu	54
fitxategien formatuak	53
soinua isilarazi	54
multimedia-mezuak	62
musika-erreprouzitzaila	87
ordenagailuetarako konexioak	98
ordua	14

P

PC konexioak

 Bluetooth bidez edo USB kable bidez ..

PC Suite

aurkibideko datuak	79
gailuaren memoriaren datuak ikusi	16
irudiak PC batera transferitu	49
multimedia-fitxategiak transferitu	16
musika-fitxategiak memoria-txartelera transferitu	53
sinkronizazioa	98
pertsionalizatu	22

PIN kodea	113	testu-mezuak	62
posta	62	testu-meuzen zerbitzu-zentroa	
automatikoki berreskuratu	68	berria erantsi	70
deskonektatuta	69	txata	
doikuntzak	72	Ikus berehalako mezularitza	
ikus atxikitako fitxategiak	68	U	
ireki	67	UPIN kodea	113
mezuen urruneko postontzia	66	UPUK kodea	113
postontzitik berreskuratu	67	USB kablea	98
S		USSD komandoak	59
sarbide-puntuak	109	V	
doikuntzak	110	Visual Radio	75
segurtasun-kodea		edukia bistaratu	76
Ikus blokeatzeko kodea		zerbitzu bisualaren IDa	76
segurtasun-kopiak	17	W	
SIM txartela		Web-a	
izenak eta zenbakiak	37	nabigatzailea	81
izenak eta zenbakiak telefonora kopiatu ..	36	sarbide-puntuak, ikus sarbide-puntuak	
mezuak	70	Z	
sinkronizazioa	99	zerbitzu-komandoak	59
sis fitxategia	117	ziurtagiriak	114
SMS zentroa, mezu laburren zerbitzuen zentroa		zuzeneko sarbideak	12
.....	70		
software-a			
fitxategiak gailura transferitu	118		
soinua isilarazi	54		
soinuak			
dei-seinalea isilarazi	30		
soinua grabatu	105		
soinu-klipak	49		
T			
telefono-aurkibidea			
alarma	78		
PCSuite-rekin sinkronizatu	79		
sarrera sortu	78		
telefono-aurkibidea			
Ikus kontaktuak			
testua erantsi	48		
testua itsatsi	62		
testua moztu	62		

 **Euskaltel**
mòvil

mòvil